



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

X. legegintzaldia

Iruña, 2021eko irailaren 10a

99. ZK.

A U R K I B I D E A

B SAILA:

Foru lege proposamenak:

—Foru Lege proposamena, zeinaren bitartez aldatzen baita Kontratu Publikoei buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legea. Zuzenketak aurkezteko epea luzatzea (3. or.).

E SAILA:

Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:

—Interpelazioa, Estatuarekiko Hitzarmen Ekonomikoaren gaineko negoziazioari buruzkoa. Mikel Asiain Torres jaunak aurkeztu du (4. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da produktu jasangarriak erostea sustatzeko gomendioa jaso dezan jantoki publikoen zerbitzuen esleipen eta emakiden baldintza-agiri teknikoetan. Nafarroako Podemos-Ahal Dugu foru parlamentarien elkarteak eta Ezkierda-Ezkerra talde parlamentario mistoak aurkeztu dute (5. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da turismo-eredu dibertsifikatuagoa eta urtaroekeko lotura txikiagokoa bultzatze dezan. Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioak aurkeztu du (7. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Vianako Jasokundeko Andre Mariaren eliza zaharberritzeko plan gidari bat egin dezan. Carlos Mena Blasco jaunak aurkeztu du (8. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da finantza dezan Azagrako landa eremuko eguneko zentroaren eraikuntza, zeinean erretiratuen etxe bat egonen baita. Marta Álvarez Alonso andreak aurkeztu du (9. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da eten digitala murrizteko asmoz liburutegiak bultzatze dezan herritarrak gai digitaletan prestatzeko eremu gisa, haien alfabetatze digitala eta gaitasun informazionala eskuratuta. Carlos Mena Blasco jaunak aurkeztu du (10. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da A-15 autobideko bidesarrietan deskontuak aplikatzeagatik konpentsazio ekonomikoari buruz Nafarroako Gobernuak eta Audenasak sinaturiko hitzarmena alda dezan. Nafarroako Alderdi Sozialista eta Geroa Bai talde parlamentarioek aurkeztu dute (12. or.).

- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da legegintzaldi honetan lizita dezan Leitzako garraio publikoaren zerbitzuaren emakida berria dezan. EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioak aurkeztu du (14. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da egin beharreko urratsak egin ditzan Espainiako Gobernuarekin lankidetzeta-hitzarmen bat sinatzeko, helburu izanen duena lankidetzan aritzea Nafarroa Mediterraneotik Kantauri itsasorainoko trenbide-korridorearen parte izan dadin. Navarra Suma talde parlamentarioak aurkeztu du (15. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Estatuko Gobernua premiatzen da Nafarroako Gobernuari aukera eman diezaion autonomo eta profesionalentzako laguntzen deialdiko baldintzak eta oinarri arautzaileak aldatzeko. Mikel Asiain Torres jaunak aurkeztu du (17. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da aukera-berdintasuneko agentearen figuraren ziurtagiri profesionala onets dezan. Nafarroako Alderdi Sozialista eta Geroa Bai talde parlamentarioek eta Izquierda-Ezkerra talde parlamentario mistoak aurkeztu dute (18. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Europako Parlamentua premiatzen da bertan behera utz ditzan afganiar migratzaileei Europara heltzea eragozten dien Turkiarekiko akordioa eta Afganistanerako deportazioak. María Luisa De Simón Caballero andreak aurkeztu du (19. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak Osasun Departamentua premiatzen da zainketa aringarrien estrategia bat eta diziplina anitzeko unitate bat sor ditzan. Nafarroako Alderdi Sozialista eta Geroa Bai talde parlamentarioek, Podemos-Ahal Dugu foru parlamentarien elkarteak eta Izquierda-Ezkerra talde parlamentario mistoak aurkeztu dute (21. or.).
- Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bat egiten baitu Gazteriaren Nazioarteko Eguna dela-eta abuztuaren 12an izan diren ospakizunekin. Eledunen Batzarrak onetsia (22. or.).
- Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bat egiten baitu heldu den irailaren 10ean egitekoa den Suizidioaren Prebentzioarako Mundu Egunarekin. Eledunen Batzarrak onetsia (23. or.).
- Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak arbuiatu egiten baititu bereziki Iruñeko Alde Zaharrean gertatutako ekintza bandalikoak eta gizalegearen nahiz elkartasunaren aurkako jokabideak. Eledunen Batzarrak onetsia (24. or.).

F SAILA:

Galderak:

- Galdera, Nafarroan espezie eta bektore inbaditzaileek osasunerako dakarten arriskua kontrolatzeari buruzkoa. Foru Diputazioarn erantzuna (25. or.).

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

- Nafarroako Kontuen Ganberaren Antolaketari buruzko Erregelamenduaren aldaketa (27. or.).

H SAILA:

Bestelako testu arau-emaileak:

- 3/2021 Legegintzako Foru-dekretua, uztailaren 14koa, Tributu Harmonizazioari buruzkoa, balio erantsiaren gaineko zerga eta energia elektrikoaren ekoizpenaren balioaren gaineko zerga aldatzen dituen (29. or.).
- 4/2021 Legegintzako Foru-dekretua, uztailaren 28koa, Tributu Harmonizazioari buruzkoa, Zerga Bereziei buruzko abenduaren 30eko 20/1992 Foru Legea eta Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 19/1992 Foru Legea aldatzen dituen (32. or.).

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Foru Lege proposamena, zeinaren bitartez aldatzen baita Kontratu Publikoiei buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legea.

ZUZENKETAK AURKEZTEKO EPEA LUZATZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko irailaren 6an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Kontratu Publikoiei buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legea aldatzen duen Foru Lege proposamenari zuzenketak aurkezteko epea luza-tzea, **2021eko irailaren 17ko 12:00ak arte**. Foru Lege proposamena 2021eko ekainaren 10eko 77.

Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen (10-21/PRO-00011).

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2021eko irailaren 6an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

E saila:
INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Interpelazioa, Estatuarekiko Hitzarmen Ekonomikoaren gaineko negoziazioari buruzkoa.

MIKEL ASIAIN TORRES JAUNAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko irailaren 6an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Mikel Asiain Torres jaunak aurkezturiko interpelazioa, Estatuarekiko Hitzarmen Ekonomikoaren gaineko negoziazioari buruzkoa.

2. Interpelazio hori Osoko Bilkuran izapideztea.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2021eko irailaren 6an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

INTERPELAZIOAREN TESTUA

Geroa Bai talde parlamentarioko foru parlamentari Mikel Asiain Torres jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako interpelazio hau aurkezten du, Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariak Osoko Bilkuran erantzun dezan:

Zioen azalpena

Nafarroan historian zehar autogobernurako gogo biziari eutsi zaio inguruabar zein formulazio eta emaitza guztiz anitzekin, eta gogo hori borondate irmo eta etengabe batean gauzatu da, alegia, Nafarroa bere orainaldia egituratu eta bere etorkizuna diseinatzeko beharrezkoak diren boterebaliabideen jabe izateko borondatean. Irriko horrek, Forua deitzen diogun horretan hezurmamitu denak, are zentzu handiagoa du gaur egun, aldaketa sakonen garai honetan agerikoa baita murgilduta gauden eraldatze sozial, ekonomiko eta politikoei aurre egiteko ezinbesteko bitartekoak edukitzeko beharra.

Nafarroako autogobernu ekonomikoaren sendotze horretan, funtsezkoa da hitzarmen ekonomikoa indartzea —gure erkidegoaren interesetatik abiatuta—, horretan baitatza Nafarroako autogobernuaren arrakastaren gakoa eta funtsezko tresna baita gure politika publikoak garatzea ahalbidetzeko; gaur egun inoiz baino gehiago, haiek sendotzea eta defendatzea funtsezko helburua da Nafarroarentzat nahi dugun etorkizuna eraikitzeko.

Saihestezintzat jotzen dugu Foru Komunitatearen autogobernu ekonomiko-finantzarioa sendotzeko eta zerga- eta tributu-arloko autogobernua finkatzeko konpromisoa, zertarako-eta Hitzarmen Ekonomikoaren edukia, funtzionamendua eta eraginkortasuna hobetzeko, hitzarmen hori defendatuz gure erkidegoaren garapen ekonomiko eta sozialerako tresna utziezin gisa. Are gehiago, COVID-19aren pandemiaren ondorioz jasandako eraso gogorraren ondoren; izan ere, horrek alde aurretik zaharkituta zeuden gai asko —gizarte- eta ekonomia-eremuak— birplanteatzea eskatzen du.

Horrenbestez, hitzarmenari beste modu batez begiratu behar diogu. Inguruabar berrietara, XXI. mendeko bigarren hamarkadaren Nafarroara, egokitzeko irakurketa berri bat behar dugu, eta horren arabera mundu mailan agertzen doazen zerga berriak —Google edo Tobin tasak, kasu— birkokatu behar ditugu, gauzatu gabeko transferentziak geureganatu behar ditugu eta Estatuan hazten doan zorrari dagokiona doitu behar dugu.

Hori guztia dela eta, Estatuarekiko Hitzarmenaren negoziazioari buruzko interpelazio hau aurkeztu dugu, Nafarroako Gobernuko Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariari zuzendua.

Iruñean, 2021eko abuztuaren 31n

Foru parlamentaria: Mikel Asiain Torres

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da produktu jasangarriak erostea sustatzeko gomendioa jaso dezan jantoki publikoen zerbitzuen esleipen eta emakiden baldintza-agiri teknikoetan

NAFARROAKO PODEMOS-AHAL DUGU FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK ETA IZQUIERDA-EZKERRA TALDE PARLAMENTARIO MISTOAK AURKEZTU DUTE

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko irailaren 6an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroako Podemos-Ahal Dugu foru parlamentarien elkarteak eta Izquierda-Ezkerra talde parlamentario mistoak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita produktu jasangarriak erostea sustatzeko gomendioa jaso dezan jantoki publikoen zerbitzuen esleipen eta emakiden baldintza-agiri teknikoetan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Batzordean izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2021eko irailaren 6an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Behean sinatzen duten talde parlamentarioaren eta foru parlamentarien elkartearen eledunek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkezten dute, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Batzordean eztabaidatu eta bozka dadin:

Gizarte garen aldetik ohartzeko gara zein garrantzitsua den hezkuntza publikoan kalitatezko produktuak bermatuko dituen sistema bat mantentzea, elikadura-sistemaren funtzionamendua hobetzeko dauzkagun lege-tresnak horretarako baliatuta, kontratazio-politika hobekak taxutuz, balorazio-mekanismoak hobetuz eta kalitaterik nahiz baliorik handiena ahal den neurrian optimizatzen direla ziurtatuz, etorkizuneko belaunaldien artean bizimodu osasungarriak eta jasangarritasuna sustatzeko xedez.

Jantoki-zerbitzua funtsezkoa da hezkuntzan eta neska-mutikoen osasunean, modu osasungarri eta egokian elikatzen irakasten zaien sozializazio-gunea baita. Jantokiaren xedea ez da txikienei elikagai hazkurritsuak ematera mugatzen, gure ingurunea babesten lagunduko duten elikadura-

ohitura osasungarri eta jasangarrietan hezteara biltzen baita. Gainera, eskola-jantokiak aukera paregabea dira gurasoek lanaldia eta seme-alaben elikaduraren zaintza moldatu ahal izan dituzaten. Espainian, halere, familiak eszeptikoak dira oraindik ere ikastetxeetan ematen diren janariaren kalitateari eta janari-motari dagokienez.

Kasu askotan, gidalerroak Europaren gomendioetatik goitiko proposamena egiten jarraitzen du animalia-jatorriko proteinen ahorakin-kopuruari dagokionez, produktu freskoak lehenetsi gabe, laugarren gamako (manipulatuak, kozinatze prest) eta bosgarren gamako (elikagai prozesatu eta aurrekozinatutako, berotzeko eta kontsumitzeko prest) produktuen mesedetan, bai eta haur txikien osasunean inpaktu zuzena duten elikagai prozesatuen eta frijituen kontsumo handia ere, zeinak obesitate-tasa handiagoak eragiten baititu.

Jantoki publikoetako catering-zerbitzuen lizitazio eta esleipen lehiaketetan preskripzio tekniko eta administratiboan agiritan argitaratutako irizpideak baloratzen dira (osasun arloko araudi indarduna betetzea, higieena, menu orekatuen eskaintza, kudeaketa-ahalmena edo hainbat jantoki hornitzeko sukalde zentralak edukitzea). Irizpide horiek "eskaintza ekonomikorik onenaren" ideia alderatu ohi dute, halako moduan non hornitzaileekiko negoziazio-tarte handieneko enpresei egiten baitzuten mesede, eskala-ekonomia handiagoa baitute, eta eragin negatiboa zeukan, berriz, eskaintza menuen kalitatean. "Kostuen arrazionalizazio" horrek ematen diren janari eta zerbitzuen kalitatea galtzea ekar dezake berekin.

Argi dago egungo elikadura-sistema aldatu beharra dagoela. Eragin negatiboa du biodibertsitatea galtzea, natur baliabideak murriztea eta ekoizle txikiak arian-arian desagertzea dakarrelako; gainera, klima-aldaketa areagotzea ere bada-kan. COVID-19aren pandemiak mundu osoan eragin duen osasun-krisia ikusita, inoiz baino garrantzitsuagoa da elikagaien produkzioan inplikaturik dauden animaliak osasuntsu egotea eta baldintza higieniko-sanitario onenetan mantentzea.

Animalien ongizatea sustatzen duten produkzio-sistemak erabakigarriak izan daitezke ganaduari antimitikobioen salmenta 2030erako % 50 murrizteko helburua lortzeko.

begira, Baserritik Mahaira Estrategian adierazten denez. Antimikrobianoekiko erresistentzia zama sozial eta ekonomiko larria da jada. Kalkuluen arabera, soilik Europar Batasunean 25.000 heriotza eragin ditu; munduan, berriz, 700.000 heriotza. Aurreikusten denez, ezer egin ezean milioika pertsona hilko dira munduan: uste da 2050ean minbi-ziak baino heriotza gehiago eragin dezakeela antimikrobianoekiko erresistentziak. Kontsumitzaileek animalien ongizatearen gaineko adierazleei errep-aratzen diete elikagaiak erosten dituztenean, ani-malien ongizatea produktuaren ezaugarri garran-tzitsuenen adierazle bat bai baita: elikagaien segurtasuna, kalitatea eta jasangarritasuna.

Jantoki publiko osasungarriago eta jasanga-riagoetara birbideratzeko beharrak exijitzen du aurre egin beharreko elikagai-krisia –sanitarioa ere badena orain– dela-eta planetak bizi duen pro-blematikaren gaineko kontzientzia har dezagun eta konponbidearen parte izan gaitezen. Nekaza-ritzako elikagaien sistema globalaren eredu-a hobetzen da baldin eta jantoki publikoetan jasan-garritasun-irizpideak sartzten badira eta elikaduran justizia soziala bezalako kontzeptuak jasotzen badira.

Lege-esparrua aldatu egin da, eta Sektore Publikoko Kontratuei buruzko 2018ko Legeari esker bideratu egin ahal izan dira ustelkeria-arazoak eta gardentasuna areagotu egin ahal izan da Espainian kontratu publikoen arloan. Lege horrek aldaketa handiak ekarri ditu lizitazio-prozesuei dagokienez, eta agerian geratu da erosketa publi-koak zeresan handia duela merkatuak eredu eko-nomiko justuago eta jasangarriago baterantz bide-ratzeko.

Ingurumenarekiko errespetuzko elikagai-sistema baterantzko eraldaketa eginen bada, jasangarrita-suna erdigunean jarriko duen ikuskera bat eduki beharra dago, ulertuta betiere horren barruan sar-tzen direla nutrizioa, landa garapen etikoa, ekoizleen nahiz banatzaileen beharrianak, kontsumitzaileen ohitura eta kezka eta animalien ongizatea.

Egungo elikagai-sisteman, ordea, janaria kontsu-morako ondasun modura ikusten da, ezen ez onda-sun komun modura. Janaria ondasun komun mod-ura ulertu behar da; izan ere, gizarte osoari mesede egiten dion baliabide bat da, baina haren ekoizpena kontrolatu egin beharra dago, natur baliabideen hor-nidura jasangarria eta arduratsua dela ziurtatzeko. Ikuskera bideragarri eta iraunkor bat ezarriko bada, baitezpadakoa da animalien ongizatea eta elika-gaien segurtasuna aintzat hartzea.

Europako Batzordearen “Europa 2030ean Jasangarria izateko bidean (Food 2030)” doku-mentuan adierazten denez, beharrezkoa da «ikus-

kera integral bat, elikagaiak ekoizteko, eraldatze-ko, kontsumitzeko eta banatzeko darabilgun mol-dea egiaz aldatzea ekarriko duena, azkarrago egi-nez elikagai-sistema jasangarri baterantzko trantsizioa, elikagai berritzaileak, osasungarriak, ingurumenarekiko nahiz animalien ongizateareki-ko errespetuzkoak, kaltegabeak eta hazkurritsuak ekoitzita».

Elikagai jasangarriagoak erosteko politika publiko bat sustatzen badugu, bat eginen dugu gudan eragina duten ingurumen-, ekologia- nahiz jasangarritasun-arazoak bukarazi eta murrizte aldera Europar Batasunak eta Nazio Batuek dara-biltzaten estrategiekin: Baserritik Mahaira; Itun Berdea, eta Garapen Jasangarriko Helburuak.

Europar Batasunaren Kontseiluak ezarri du animalien ongizatea lotuta dagoela orobat “elika-gaien segurtasunari, lagungarria baita erresilien-tziarako, baliabideen efizientziarako eta ekitatea-ren nahiz erantzukizun sozialaren arloko emaitzetarako”, Elikagaien Segurtasunaren Mun-duko Komiteak ondorioztatu zuen gisa.

Proposatzen den erosketa publikoa irizpide eti-koagoak, sozialagoak nahiz ingurumenarekiko errespetuzkoagoak sustatzen dituen da, egungo elikaduran aldaketa sartzeko eta elikadura-subiranotasunean oinarritutako eredu baterantz abiatzeko. 2015ean Ekonomia Zirkularrerako Europako Plana onetsi zen, eta bi urte geroago “Ekonomia zirkular baterako kontratazio publikoa” gida argitaratu zen; bertan, azpimarratu egiten da administrazio publikoen garrantzia, “ekonomia zir-kular baterantzko trantsizio prozesurako funtsezko motorra diren aldetik”.

Hori dela-eta, behean sinatzen duten talde par-lamentarioak eta foru parlamentarien elkarteak honako erabaki proposamen hau aurkezten dute:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gober-nua premiatzen du produktu jasangarriak erostea sustatzeko gomendioa jaso dezan jantoki publiko-en zerbitzuen esleipen eta emakiden baldintza-agiri teknikoetan, hala hezkuntzaren nola osasu-naren eta gizarte zerbitzuen arloetan, animalien ongizateari dagokionez estandar handiagoak egiaztatuko dituztenak, sasoiari sasoiko produk-tuak erabiltzeari lehentasuna emanen diotenak eta arrautza freskoak soilik erabiltzeko baldintza bete-ko dutenak, edo, kasua bada, 0, 1 eta 2 modalita-teetatik heldu den oboproduktua.

Iruñean, 2021eko ekainaren 29an

Foru parlamentariak: Ainhoa Aznárez Igarza eta María Luisa De Simón Caballero

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da turismo-eredu dibertsifikatuagoa eta urtaroezikiko lotura txikiagokoa bultzatzea.

NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko irailaren 6an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita turismo-eredu dibertsifikatuagoa eta urtaroezikiko lotura txikiagokoa bultzatzea.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzeko, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2021eko irailaren 6an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioko eledun Ramón Alzorritz Goñi jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko: Nafarroako Gobernua premiatzen da turismo-eredu dibertsifikatuagoa eta urtaroezikiko lotura txikiagokoa bultzatzea.

Zioen azalpena

Nafarroako Foru Komunitatea askotariko helmuga turistikoa da (gastronomikoa, kulturala), abantaila asko dituena naturari lotutako helmugei dagokienez, ia masifikaziorik ez duena eta kalitate handiko landa-turismoko eskaintza duena.

2020a ixtean, Nafarroak datu oso latzak izan zituen turismoaren arloan; izan ere, Nafarroako Turismo Zuzendaritza Nagusiaren datuen arabera, 607.534 bidaiari hartu genituen urte osoan (aurreko urtean baino % 58,6 gutxiago), eta horrek oso ondorio txarrak dakartza ekonomiari begira, enplegua suntsitzea dakar eta ondorio larriak dauzka landa eremuetan. Pandemiak, besteak beste, egin behar diren aldaketa handiak azkartzera garamatza, eta turismoa ezin da bazterrean gelditu.

Helmugan Jasangarritasun Turistikoari buruzko Planen Programa, zeina Estatuko Turismo Idazkaritzak taxututako esku-hartzea baita, Next Generation funtsen bidez finantzatutako Susperzte, Eraldatze eta Erresilientzia Planean sartzen da. Besteak beste, helburua izan behar da turismoaren sektorea 2030eko Agendako GJHekin bat datorren estrategia bihurtzea, ingurumen-, lurralde-, gizarte- eta ekonomia-jasangarritasuneko eredu batean.

Testuinguru horretan, Europako funtsak, zeinak Helmugan Jasangarritasun Turistikoari buruzko Plan Autonomikoen bidez bideratuko baitira autonomia erkidegoetan, oinarritzeko laguntza izanen dira Nafarroak sektorea berregin ahal izateko proiektuak taxutu ahal izan ditzan, sektore horrek hil ala biziko garrantzia duelako ekonomiari, enpleguari eta landa eremuak mantzentzeari begira, turismoarekin oso lotuta baitaude.

Gure ustez, ahal den gehien aprobetxatu behar dira Helmugan Jasangarritasun Turistikoari buruzko Planen Programak eskaintzen dizkigun aukerak, Nafarroako espazio turistikoa eredu jasangarri, inklusibo eta eraldaketa digitalari egokitu bihurtzeko helburua azkartzeko. Hori dela-eta, turismo-eredu dibertsifikatuagoa eta urtaroezikiko lotura txikiagokoa bultzatzeko xedez, honako erabaki-proposamena aurkezten du Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioak:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du jasangarritasun-balioak jaso ditzan Nafarroa helmugako turismo-markan nazioarteko merkatuetan.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du, daukagun aniztasun handia aprobetxatuta, gure erkidegoko geografia osoan turismoa modu orekatuagoan banatzea bultzatzea, natur, kultura, ondare, gastronomia eta aisialdia balio handiko espazioak bultzatuz.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du turismo-jardueraren bilakaera jasangarritasun-irizpideetarantz lerratzea bultzatzea.

4. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Nafarroako zein beste autonomia erkidegoetako administrazioen, turismo-entitateen eta turismo-sektoreko eragileen

arteko lankidetzeta eta elkarlana bultzatzen jarrai dezan, lurralde-eskaintza indartzearen.

5. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuia premiatzen du sektoreko arrakala digitala murriztu dezan, konektatuta dagoen turistaren

eskariei egokitzeko nahiz tokiko kudeaketa publikoaren efizientzia areagotzeko.

Iruñean, 2021eko uztailaren 19an

Foru parlamentaria: Ramón Alzórriz Goñi

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuia premiatzen Vianako Jasokundeko Andre Mariaren eliza zaharberritzeko plan gidari bat egin dezan.

CARLOS MENA BLASCO JAUNAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko irailaren 6an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Carlos Mena Blasco jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuia premiatzen baita Vianako Jasokundeko Andre Mariaren eliza zaharberritzeko plan gidari bat egin dezan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2021eko irailaren 6an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioko Carlos Mena Blasco jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko. Mozioaren bidez, Nafarroako Gobernuiko Kultura eta Kirol Departamentua premiatzen da Vianako Jasokundeko Andre Mariaren eliza zaharberritzeko plan gidari bat egin dezan.

Zioen azalpena

Vianako Jasokundeko Andre Mariaren eliza bikaina da, XIII. mendearen amaieran eta XIV.aren hasieran estilo gotikoan eraikia. XVI. eta XVII. mendeetan zabaltze-lanak eta aldaketak ere egin ziren bertan. 1931tik Monumentu Nazionalaren kategoria dauka.

Gotorleku izaera ere badu, iparreko harresia- ren horma-ataletan kokatuta dagoelako, eta katedral baten dimentsioak dauzka, horma leunekin eta horma-bular indartsuekin. Mendebaldean ate gotiko xumea dauka, zeinean ama birjina zutik ageri baita, haurrarekin. Tinpanoan dauden bi aingeruk lagun egiten diote. Mendebaldeko portada XIV. mendekoa da (hegoaldekora desagertu egin zen).

Errenazimendu garaiko portada harrizko benetako erretaula bat da, eta egile askoren arabera "Nafarroako Errenazimenduko harrizko lanik miresgarriena.

Juan de Goyazek eta, aurrerago, Juan Ochoa de Arranotegui eta Juan de Orbarak diseinatu da, eta Jesusen bizitzako uneak erakusten ditu: Baratzeko Otoitza, Deikundea, Kristoren Jaiotza. Erdiko gangaren goiko aldean Jasokundeko Ama Birjina ageri da, elizako titularra baita, bai eta Kalbarioa ere. Sarrerako arkuko dobeletan, Jaiotzaren Horoskopoa eta Kristoren Heriotza ikus daitezke. Haren oinetan, Alejandro VI.a aita santuaren semea zen César Borgia hilobia dago, zeina Vianan hil baitzen 1507ko martxoaren 12an, Nafarroako armak defendatzen ari zela.

Andre Mariaren eliza Donejakue Bidean dago bete-betean. Kultur intereseko ondasun deklaratu- ta dagoen eraikina da, zeina, gainera, Foru Komunitateko erromesei agur egiten dien elizarik handiena baita.

Antxo VII.ak Nafarroako erresuma defendatzeko harresidun hiri bat eraikitzea planteatu zuenetik, Andre Mariaren eliza hirian bizitako une historiko nagusien lekukoa izan da. Setioak izan dira bertan, erromesen aterpea izan da, eta soldaduak ere hartu ditu, errondak eginez biztanle berrien segurtasuna zaintza-lanetan ari zirela.

Erresumaren historian gertakari handien lekukoa izan da. Baina, gainera, herri baten erreferentzia da, kolektiboarena zein banakakoena, zeren eta vianar guztien une garrantzitsuenetako dekoratua izan baita.

Agerikoa da egoera ahulean dagoela, jabearen eta administrazio publikoen esku-hartzerik ezaren ondorioz.

Horregatik guztiagatik, sozialisten talde parlamentarioak honako erabaki proposamen hau aurkezten du:

Nafarroako Gobernuak Kultura eta Kirol Departamentua premiatzen da honako hauek egin dituzan:

– Vianako Udalaren, Nafarroako Elizbarrutia-
ren eta Kultura Departamentuaren artean lan-
mahai bat sortzea, Vianako Jasokundeko Andre
Mariaren elizan etorkizunean hartuko diren eraba-
kien inguruan elkarrekin lan egiteko.

– Vianako Jasokundeko Andre Mariaren eliza
birgaitzeko plan gidaria idaztea. Plan hori amaitu-
takoan, Nafarroako Parlamentuko Kultura eta Kirol
Batzordean aurkeztuko da.

Iruñean, 2021eko uztailaren 22an

Foru parlamentaria: Carlos Mena Blasco

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da finantza dezan Azagrako landa eremuko eguneko zentroaren eraikuntza, zeinean erretiratuen etxe bat egonen baita.

MARTA ÁLVAREZ ALONSO ANDREAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko irailaren 6an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Marta Álvarez Alonso andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuak premiatzen baita finantza dezan Azagrako landa eremuko eguneko zentroaren eraikuntza, zeinean erretiratuen etxe bat egonen baita.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Eskubide Sozialetako Batzordean izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2021eko irailaren 6an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikita dagoen foru parlamentari Marta Álvarez Alonso andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Eskubide Sozialetako Batzordean eztabaidatzeko:

Zioen azalpena

Biztanleriaren zahartze progresiboak gero eta erronka eta behar gehiago sortzen dizkigu adinekoei arreta ematearen arloan. Kalitatezko gizarte-zerbitzuak eta pertsona horiek nahi dutenera egokitutakoak edukitzea, beraz, administrazio publikoen etengabeko erronka da, eta erantzun egin behar zaio.

Beren etxean bizitzeko gogoia adierazten dute etengabe adineko pertsonak, bai hiri-inguruneetan bizi direnek, bai landa-ingurunean bizi direnek.

Pertsonarengan oinarritutako arreta-eredua funtsezko elementua da adinekoei eskaintzen zaizkien gizarte-zerbitzuen kalitatea hobetzeko eta beren ingurunean irauten laguntzeko.

Eredu horren alde egiten du abenduaren 2ko 92/2020 Foru Dekretuak, zeinak arautzen baititu, batetik, Nafarroako Foru Komunitateko gizarte zerbitzuen sistemaren barruan, egoitza zerbitzuen, eguneko zerbitzuen eta zerbitzu anbulatorioen funtzionamendua adinekoen, desgaitasuna dutenen, eritasun mentala dutenen eta gizarte-inklusioaren arloetan, eta bestetik, baimenen, aurretiazko komunikazioen eta homologazioen araubidea. Izan ere, foru dekretuak lehenengo aldiz jasotzen du landa eremuetako eguneko zentroen figura.

Landa eremuetako eguneko zentroak Nafarroan aspalditik hainbat udalek aztertu eta eskatutako zerbitzu bat da, zeina honela definitzen baita: landa eremuko udalerrietan kokatutako establezimenduetan ematen den zerbitzua, non ez baitago egoitza zerbitzurik edo eguneko arretarako beste-lako zerbitzurik mendekotasuna duten pertsoneri arreta emateko; hainbat zerbitzu eskaintzen ditu eguneroko eginkizunetan laguntzeko, aisialdikoak, autonomia pertsonala sustatzekoak eta mendekotasunari aurrea hartzekoak.

Zentro horiek, beraz, udalerrri txikietan egoten dira, eta ez dute adineko pertsonentzako edo mendeko pertsonentzako bestelako zerbitzurik izateko aukerarik, eta, beraz, erraztu egiten dute pertsona horiek beren ingurunean irautea.

Zentro horietako bat abian jartzeko interesa agertu duen udalerrietako bat Azagra da. Udalerrri

horrek 3.840 biztanle ditu 2019ko erroldaren arabera, horietatik 784 65 urtetik gorakoak, ez du zaharren egoitzarik, eta dagoeneko sartuta dago landa-eguneko zentroko proiektu bat egiteko prozesuan. Proiektu horren barruan, gainera, erretiratuen etxe bat egonen da, zeinaren bideragarritasun-azterlana eginda baitago.

Proiektu hori gauzatzeko, Azagrako Udalak finantzaketa behar du.

Hori guztia dela-eta, honako erabaki proposamen hau aurkeztu dugu:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du finantza dezan Azagrako landa eremuko eguneko zentroaren eraikuntza, zeinean erretiratuen etxe bat egonen baita.

Iruñean, 2021eko uztailaren 23an

Foru parlamentaria: Marta Álvarez Alonso

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da eten digitala murrizteko asmoz liburutegiak bultzatzen dituzan herritarrak gai digitaletan prestatzeko eremu gisa, haien alfabetatze digitala eta gaitasun informazionala eskuratuta.

CARLOS MENA BLASCO JAUNAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko irailaren 6an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Carlos Mena Blasco jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita eten digitala murrizteko asmoz liburutegiak bultzatzen dituzan herritarrak gai digitaletan prestatzeko eremu gisa, haien alfabetatze digitala eta gaitasun informazionala eskuratuta.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2021eko irailaren 6an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikitako Carlos Mena Blasco jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko mozioa aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko. Horren bidez, eten digitala murrizteko asmoz, Nafarroako Gobernuak Kultura eta Kirol Departamentua premiatzen da, liburutegiak bultzatzen dituzan herritarrak gai digitaletan prestatzeko eremu gisa, haien alfabetatze digitala eta gaitasun informazionala eskuratuta.

2030 Agenda, Garapen Jasangarriko Helburuak (GJH) politiken erdigunean edukita, Nazio Batuen Batzar Nagusian herrialdeek, oro har, onetsi eta partekatutako ibilbide-orri garrantzitsuena da.

2030 Agenda eraldaketa globalerako aukera bat da, herrialdeak garapen barneratzaile eta jasangarriko ereduera eramanez.

Gure herrialdean 2030 Agenda ez zen jaio Pedro Sánchezen Gobernu sozialistak hura sus-

tatzeko apustu garbia egin arte, agenda betetzearen beharra ikusaraziz, gizarte inklusiboagoak, errespetuzkoagoak eta berdinzaleagoak sortzeko.

2030rako GIHak beteko dituen Espainia da guztiok amesten dugun herrialdea. Horregatik, 2030 Agenda Estatuaren ikuspegiaren eta Gobernuaren ekintzaren erdigunean dago jada. Munduan jarduteko modu bat islatzen du. Helburu bakoitzaren xedeak betetzeko gizarte osoa erakarrri behar da, talde bat sortuz, non bakoitzak berea egin beharko baitu: gobernuak, sektore pribatua eta gizarte zibila.

Nafarroa Suspertu Plana onetsita, Nafarroak etorkizunerako oinarriak ezarri ditu, plana gure erkidegoa sustatzeko tresna eta dokumentu estrategikoa bai baita. Foru erkidegoa 2030eko Agendarekin ados dago une oro, eta "inor atzean ez gelditzeko" helburua betetzen ari da, krisitik irteteko beste modu bat posible dela iritzita.

Lehen begiratuan, kultura da GJHen ahaztu handia, baina helburu horien zeharkako azterketa egiten badugu ondoriozta dezakegu ezarritako 17 helburuetatik askotan ageri dela jasota. Hortaz, uste dugu jasangarritasuna dela bide zuzena, eta herritarren artean horren kontzientzia eriteko modua hezkuntzaren eta kulturaren eskutik helduko dela.

Halatan, liburutegiak, herritarrek eskura dituzten espazioak diren aldetik eta lurralde osoan presente dauden aldetik, ezinbesteko aliatuak dira

garapen jasangarriko helburuak lortzeko. Gure erkidegoa kohesionatu eta hezurmamitzen duten espazioak dira. Funtsezko eragileak dira bakea, ongizatea eta oparotasuna sustatzeko.

Horregatik guztiagatik, sozialisten talde parlamentarioak honako erabaki proposamen hau aurkezten du:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du:

1.- Nafarroako herrietan 2030eko Agendako informazioa lortzeko, Agendaren gaineko prestakuntza eskuratzeko eta Agenda betetzeko topaguetzat har ditzan liburutegiak.

2.- 2030eko Agendaren departamentu arteko lantaldearen esku jar ditzan Nafarroako liburutegiak, 2030eko Agendako Garapen Jasangarriko Helburuez sentsibilizatzeko eta helburu horien hedapena egiteko espazio gisa.

3.- Herritarrek arlo digitalean prestatzeko espazio gisa bultzatzen dituzten liburutegiak, herritarrek alfabetatze digitala eta informazioa lortzeko gaitasuna lor dezaten, arrakala digitala murriztea xede.

4.- Nafarroako liburutegietako profesionalen 2030eko Agendaren nahiz agenda ezartzeko estrategien gaineko prestakuntza eman diezaien.

Iruñean, 2021eko uztailaren 30ean

Foru parlamentaria: Carlos Mena Blasco

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da A-15 autobideko bidesarrietan deskontuak aplikatzeagatiko konpentsazio ekonomikoari buruz Nafarroako Gobernuak eta Audenasak sinaturiko hitzarmena alda dezan.

NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA ETA GEROA BAI TALDE PARLAMENTARIOEK AURKEZTU DUTE

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko irailaren 6an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroako Alderdi Sozialista eta Geroa Bai talde parlamentarioek aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita A-15 autobideko bidesarrietan deskontuak aplikatzeagatiko konpentsazio ekonomikoari buruz Nafarroako Gobernuak eta Audenasak sinaturiko hitzarmena alda dezan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2021eko irailaren 6an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Behean sinatzen duten talde parlamentarioek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkezten dute, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko. Honen bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da A-15 autobideko bidesarrietan deskontuak aplikatzeagatiko konpentsazio ekonomikoari buruz Nafarroako Gobernuak eta Audenasak sinaturiko hitzarmena alda dezan.

Nafarroako Gobernuak 2021eko otsailaren 24an hartutako erabakiak ebatzi zuen Ekonomia eta Ogasun Departamentuaren eta Kontuhartzaitza Nagusiaren arteko desadostasuna, Audenasari faktura bat ordaintzearen gainekoa. Aipatu erabakia-dela eta hainbat ekimen izan dira Nafarroako Parlamentuan, besteak beste Gobernuak onetsitako erabaki horren kaltegarritasun aitorpena egiteko eskaera eta Kontuen Ganberak eta Nafarroako Kontseiluak legezketasun txostenak egiteko eskaera.

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, 2021eko apirilaren 19an eginiko bilkuran, erabaki

zuen Kontuen Ganberari fiskalizazio-txosten urgente bat eskatzea, "autobideko erabiltzaileei aplikatzen zaizkien deskontuak direla-eta Nafarroako Gobernuak Audenasari fakturak ordaintzean aplikatutako konpentsazio-formulari" buruzkoa. Zehazki, analisisa eskatu zuen honako hauen gainekoa:

- "... Aldaketarik izan ote den enpresa adjudikazio-hartzaileari AP-15 autobideko deskontuak konpentsatzeko adosturiko formularen (emakidakontratukoaren nahiz hitzarmen ezberdinetakoen) aplikazioan.

- Ea Nafarroako Gobernuaren eta Audenasaren artean sinaturiko hitzarmenak legezketasunari loturik ote dauden, trafiko-beherakada izanez gero.

- Ea Ekonomia eta Ogasun Departamentuak ematea eta AUDENASARI ordaintzea onartu duen aipatu faktura-zenbatekoa legediaren arabera ote den...".

Halaber, Nafarroako Parlamentuak, 2021eko maiatzaren 13an eginiko Osoko Bilkuran, fiskalizazio finantzarioari eta legezketasunari buruzko txosten berezi eta urgentea egitea eskatu zuen, Nafarroako Gobernuak 2021eko otsailaren 24an harturiko erabakiei buruzkoa, Nafarroako Foru Komunitateren deskontu-kompentsazioko espedientearen gainekoa, Audenasarekiko politika komertziala dela-eta, 2020ko azaroari dagokionez. Guztizko zenbatekoak 6,28 milioi egiten du.

Bestaldetik, 2021eko apirilaren 14an Navarra Suma talde parlamentarioak Nafarroako Kontseiluari eskatu zion irizpen fakultatiboan egitea Nafarroako Gobernuak 2021eko otsailaren 24an hartutako erabakiaren legezketasunari buruz erabakiak ebatzi zuen Ekonomia eta Ogasun Departamentuaren eta Kontuhartzaitza Nagusiaren arteko desadostasuna-, Audenasak 41E/2020 Foru Aginduaren aurka jarritako gora jotzeko errekursoari eta zuzenbidearen kontrakoa izanez gero, egonen liratekeen ondorioei eta egin beharreko izapideei dagokienez.

Bi txosten horiek erabat argiak izan dira, eta ondorioztatu dutenez Audenasari faktura ordain-

tzeari buruz Nafarroako Gobernuak 2021eko otsailaren 24an hartutako erabakia legezko prozedurari egokitzen zaio, aplikatzekoa den araudiaren arabera, ez da formularen aldaketa bat eta egin dena izan da formula interpretatzea salbuespenezko kasu baterako, non trafikoaren jaitsiera izugarria egon den, eta hitzarmena hertsiki betetzea.

Zehazki, Kontuen Ganberak txostenean zehazten duenez “gora jotzeko errekurtsioa aurkeztu ondoren jarraitutako prozedura, kontratuaren interpretazio bat zekarrena eta Audenasaren 2020ko azaroko faktura, 6,28 milioikoa, ordaintzea onesten zuena, aplikatzekoa den araudiarekin bat dator...”, eta gomendioa egiten du Audenasarekiko hitzarmena aldatzeko, Nafarroako Alderdi Sozialista, Geroa Bai eta Podemos-Ahal Dugu talde parlamentariak egin genuen bezala, 2021eko apirilaren 15eko Osoko Bilkuran, aldatzeko zuzenketa baten bidez, baina mozioaren eztabaidan proposatzaileak ez zuen onartu. Mozioak Nafarroako Gobernuak premiatzen zuen 2021eko otsailaren 24ko gobernu-erabakien kaltegarritasun aitorpena egitera, ondoren haiek administrazioarekiko auzien jurisdikzioan aurkaratzeko. Kontuen Ganberaren gomendioak honela dio, hitzez hitz: “Alda bedi hitzarmena, ez dadin berori interpretatzen ibili beharrik egon ezohiko zirkunstantziak gertatzen diren kasuetan, formula bitarteko proposa izan dadin egokiro betea izateko”.

Bestaldetik, Nafarroako Kontseiluak argitaratutako irizpen batean azaltzen denez “autobidearen erabiltzaileendako deskontu-politikaren ondoriozko Audenasari eman beharreko konpentsazio eko-

nomikoa zehazteko modua iritsi da hitzarmenean xede horrekin aurreikusitako formularen interpretazio arrazoizko eta arrazoitu batetik, eta ez dator formularen aldaketa batetik”, areago, “ondorio dialektiko soiletarako ulertuta ere formularen aldaketa bat dela eta, beraz, 2021eko otsailaren 19ko fiskalizazio txostenak dioen moduan Audenasarekin sinatutako hitzarmena eta hura osatzen duten klausula guztiak, besteak beste konpentsaziokoa, aldatzeko organo eskuduna Nafarroako Gobernu dela, ez da ahaztu behar Ekonomia eta Ogasun Departamentuaren eta Kontu-hartzaitza Nagusiaren arteko desadostasuna, Audenasari faktura ordaintzearen gainekoa, ez dela ebatzi foru agindu baten bidez, baizik eta Nafarroako Gobernuak 2021eko otsailaren 24an hartutako erabakiaren bidez, hain zuzen”.

Horregatik, Kontuen Ganberak gomendatzen duen moduan, behean sinatzen duten talde parlamentarioek ondoko erabaki proposamena aurkezten dute:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du A-15 autobideko bidesarrietan deskontuak aplikatzeagatiko konpentsazio ekonomikolari buruz Nafarroako Gobernuak eta Audenasak sinaturiko hitzarmena alda dezan, ez dadin berori interpretatzen ibili beharrik egon ezohiko zirkunstantziak gertatzen diren kasuetan, formula bitarteko proposa izan dadin egokiro betea izateko.

Iruñean, 2021eko abuztuaren 4an

Foru parlamentariak: Ainhoa Unzu Garate eta Mikel Asiáin Torres

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da legegintzaldi honetan lizita dezan Leitzako garraio publikoaren zerbitzuaren emakida berria dezan.

EH BILDU NAFARROA TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko irailaren 6an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita legegintzaldi honetan lizita dezan Leitzako garraio publikoaren zerbitzuaren emakida berria dezan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Lurralde Kohesiorako Batzordean izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2021eko irailaren 6an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

EH Bildu-Nafarroa talde parlamentarioak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkeztu du Lurralde Kohesiorako Batzordean eztabaidatzeko eta bozkatzeko: Nafarroako Gobernua premiatzen da legegintzaldi honetan lizita dezan Leitzako garraio publikoaren zerbitzuaren emakida berria.

Leitzako Udalaren ordezkaritza batek agerraldia egin zuen ekainaren 29an Nafarroako Parlamentuan, Leitzaldeko garraio publikoaren zerbitzuaren gabeziak azaltzeko, bai eta gabezia horiek eremu horretako herritarrei eguneroko bizitzan sortzen dizkieten eragozpenak ere. Eskualde horretako biztanleak erabat sentsibilizatuta daude garraio publiko duin baten zerbitzua eduki beharraz; izan ere, 1.635 sinadura batu dira hilabete batean, eta hori ez da, ez, kopuru makala, kontuan izanda Leitzan 16 urtetik goitiko 2.560 pertsona bizi direla.

Lan-bilkura horretan azpimarratu zen garraio publikoa oinarrizko zerbitzu bat dela eta zerbitzua kaskarra izateak eragin zuzena daukala landa eremua jendez husteari, jasangarritasunari, genero-arrakalari edo pertsona zaharren autonomia ezari begira.

Zerbitzuaren gabeziak aspaldikoak dira, eta, hartara, biztanlerik gehienak garraio pribatua erabiltzera behartuta daude. Adineko jendeak eta ibilgailurik ez daukanak, beraz, arazo handiak dauzka Leitzatik irteteko.

Iruñetik Donostiara doan autobus-linea bikoiztuta dago, eta bi enpresak ematen dute zerbitzu hori. Bi horien arteko lehia-arazorik egon ez zedin, enpresa bateko erabiltzaileak Leitzan jaisten ahal ziren (igo ez, ordea); eta alderantziz: beste enpresakoak Leitzan igotzen ahal ziren (jaitsi ez, ordea), nahiz eta herrian geltokia izan.

Leitzako Udalak eskatuta, eta Garraioen eta Mugikortasun Jasangarriaren Zuzendaritza Nagusiaren baimenarekin, bi enpresa horiek zerbitzua batera emateko baimena dute abuztuaren 2az gero, eta zerbitzuaren maiztasuna areagotu egin da astelehenetik larunbatera bitarte. Igande eta jaiegunetan ere hasi da ematen zerbitzua, halako moduan non konpondu egin baita orain arteko garraio publikorik ezaren arazoa. Urrats hori zerbitzuaren eta herritarren eskubideen onerako izan da inondik ere.

Halere, konponbide egonkor eta behin betikoa eman behar zaio auzi honi, zerbitzuaren emakida behingoz lizitatuta. Urte asko joan dira lehengo emakida irauungi zenetik, eta azken sei urteotan Nafarroako Gobernuak Udalari sarritan esan dio baldintza-agiriak laster argitaratuko zirela, esleipen-prozesua abian zegoela eta abar. Baina urtea joan urtea etorri zerbitzu berria esleitu gabe dago.

2018ko martxoaren 16an, orain dela hiru urte baino gehiago alegia, Nafarroako Gobernuak bilera bat deitu zuen eskualdean, zerbitzua nola berri-tuko zen azaltzeko. Eskualdeko udalek ekarpenak egin zituzten, baina harrezkero ez da ezertan ere aurrera egin, eta prozedura geldirik dago.

Arazo hori Nafarroako beste eremu batzuetan ere gertatzen ari da, non garraio publikoaren zerbitzuak ez baitie erantzunik ematen landa eremuetako herritarren beharrez. Jendez hustearen arazoari aurre egiteko estrategiarekin bat, abordatze integralari ekiteko, eskariak aztertze eta emakidak berritzeko unea ailegatu da, mugikortasun eta irisgarritasun eskubidea bermatzeko.

Hori dela-eta, honako erabaki proposamen hau aurkeztu dugu:

1. Nafarroako Parlamentuak balioetsi egiten du ipar-mendebaldeko hiriarteko garraio publikoaren zerbitzua hobetze aldera uda honetan ezarri den aldi baterako konponbidean egindako aurrerabidea, zeinak Leitzari eragiten baitio, eta Nafarroako Gobernuak premiatzen du egiturazko behin betiko konponbide bat eman diezaion, legegintzaldia bukatu aitzin zerbitzuaren emakida berria lizitatuta.

2. Nafarroako Parlamentuak, halaber, Nafarroako Gobernuak premiatzen du abordatze integral bati ekin diezaion Nafarroako landa eremu eta eskualdeetako herritarrek garraio publikoari dagokionez dauzkaten beharrianak ezagutzeko eta horiei erantzuteko, zerbitzuaren emakidak ahal bezain laster berrituta.

Iruñean, 2021eko abuztuaren 4an

Foru parlamentaria: Bakartxo Ruiz Jaso

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da egin beharreko urratsak egin ditzan Espainiako Gobernuarekin lankidetzaren hitzarmen bat sinatzeko, helburu izan den lankidetzaren aritzea Nafarroa Mediterraneotik Kantauri itsasorainoko trenbide-korridorearen parte izan dadin.

NAVARRA SUMA TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko irailaren 6an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Navarra Suma talde parlamentarioak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuak premiatzen baita egin beharreko urratsak egin ditzan Espainiako Gobernuarekin lankidetzaren hitzarmen bat sinatzeko, helburu izan den lankidetzaren aritzea Nafarroa Mediterraneotik Kantauri itsasorainoko trenbide-korridorearen parte izan dadin.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2021eko irailaren 6an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioaren eledun José Javier Esparza Abaurrea jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko:

Zioen azalpena

Abiadura Handiko Trena, salgaien nahiz pertsonen garraio-komunikazioak hobetzen laguntzen duen azpiegitura bat da: garapen ekonomiko handiagoa ematen dio azpiegitura hori duenari, lurraldea egituratzen du eta modernitate-irudi bat nahiz kanpora begirako irudi bat ematen du.

Nafarroarentzat, Abiadura Handiko Trenak izan behar du —eta izan hala da— Europan zeharreko oinarrizko sare bat, Europak aitortu eta saritua, Frantziatik eta, horrenbestez, Europako gaitzetzeko trenbide-komunikazioetatik hurbil egoteagatik; hortaz, lehenetsi beharrekoa da, Espainiako beste batzuen aldean.

2019ko abenduan Nafarroako Parlamentuak, Navarra Sumaren ekimenez eta PSNren eta Geroa Bairen aldeko botoekin, lau puntuko mozio bat onetsi zuen, honetarako: Nafarroako Gobernuak premiatzea egin beharreko urratsak egin ditzan Espainiako Gobernuarekin hitzarmen bat sinatzeko, helburu izan den AHTaren garapenean lankidetzaren aritzea obrak azkartzeko; Nafarroako hurbileko/aldiritako trenbide-sistema hobetzeko jarduketak egin ditzan, trena erregio barneko distantzia ertaineko garraiobide gisa erabil dadin sustatzeko; Espainiako Gobernuarekin batera lan egin dezan, Aragoiko autonomia erkidegoan izapidetze administratiboa eta obren lizitazioa azkartzeko, jarraitutasuna eman ahal izan dakien Nafarroan egiten ari diren AHTaren obrei; Espainiako Gobernuarekin lankidetzaren aritu dadin

AHTaren komunikaziorik onenaren eta azkarrenaren proiektua idazteko eta betetzeko, gure erkidegoan euskal Y-arekin lotzeko; ea lehentasuna eman diezaien Foru Komunitateko trenbide-komunikazioak –aldirietakoak nahiz abiadura handikoak– sustatzeko, hobetzeko eta azkartzeko jarduketa guztiei.

Halere, ia bi urte geroago, ez da inolako urratsi egin mozio horren edukia betetzeko, bete gabe utziz Nafarroako Parlamentuaren gehiengoaren borondatea, AHTa Nafarroara berehala iristearen aldekoa.

Aurreko legegintzaldian erantzunik erakutsi ez izana eta legegintzaldi honetan zehar proiektua geraturik gelditu izana ezin da oztupo izan nafarrek azpiegitura horren garapen azkarra areagotzeko eta ziurtatzeko; hartara, oinarrizko azpiegitura bat, interes orokorreko obra bat, gozatzen ahalko dute, zeina ezinbestekoa baita Foru Komunitatearen lehiakortasuna hobetzeko eta Europarekiko nahiz Espainiako gainontzeko lurraldeekiko konektibitatea hobetzeko.

Horregatik, gaur egun are beharrezkoagoa da Nafarroako Gobernuak apustu irmoa egitea AHTa azkartzeko eta ziurtatzeko; izan ere, Nafarroa estrategikoki kokatuta dago, Kantauri itsasotik Mediterraneorako ardatzaren erdian eta Pirinioetako mugatik gertu baitago.

Bidaiarientzako eta salgaienezako abiadura handiak indartsuago eginen gaitu, eta European erreferentziako erregio bihurtuko gaitu. Foru erkidego osoak aterako dio etekina enplegua sortzeko iturri horri, bai obra egiten denean, bai eta korridorea funtzionamenduan sartzten denean eta ezartzen diren hazkunde logistikoekin ere.

AHTa Espainiako Gobernuaren eskumena bada ere, egia da orobat garrantzitsua izanen litzatekeela Nafarroako Gobernuak eta Espainiako

Gobernuak hitzarmen bat sinatzea lankidetzan hobetzeko eta, horrenbestez, obran parte-hartze zuzena edukita, obra azkarrago egin dadin laguntzeko.

Aldirietako nahiz hurbileko trenbide-komunikazioek pertsonen eta salgaien mugikortasuna hobetzen laguntzen dute; horrenbestez, Nafarroan bizi diren pertsonen bizi-kalitatea eta Nafarroan kokatuta dauden enpresen tokiko ekonomia hobetzen laguntzen dute; hartara, beharrezkoa da Nafarroako Gobernuaren sarerik onena eta modernoena izateaz arduratu dadin.

Era berean, ezinbestekoa da al bait lasterren zehaztea AHTa Iruñera iristeko behar den proiektua, eta horrek eskatzen du, halaber, Iruñeko geltoki berriaren kokapena definitzea eta hura eraikitzeko izapideak hastea.

Horregatik guztiagatik,

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuaren premiaz du egin beharreko urratsak egin ditzan Sustapen Ministerioaren eta ADIFen bitartez Espainiako Gobernuarekin hitzarmen bat sinatzeko, helburu izanen duena AHTaren garapenean lankidetzan aritzea obrak azkartzeko eta Nafarroa sartzeko Mediterraneotik Kantauri itsasorainoko trenbide-korridorean, nazioarteko estandarrekin, nazioarteko zabaleradun bide bikoitzarekin eta bidaiari nahiz salgaietarako erabilerarekin.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuaren premiaz du al bait lasterren zehatz dezan Iruñeko geltoki berrirako proiektua eta, halaber, al bait lasterren has ditzan hura eraikitzeko izapideak.

Iruñean, 2021eko abuztuaren 16an

Foru parlamentaria: José Javier Esparza Abaurrea

Mozioa. Horren bidez, Estatuko Gobernua premiatzen da Nafarroako Gobernuari aukera eman diezaion autonomo eta profesionalentzako laguntzen deialdiko baldintzak eta oinarri arautzaileak aldatzeko.

MIKEL ASIAIN TORRES JAUNAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko irailaren 6an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Mikel Asiain Torres jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Estatuko Gobernua premiatzen baita Nafarroako Gobernuari aukera eman diezaion autonomo eta profesionalentzako laguntzen deialdiko baldintzak eta oinarri arautzaileak aldatzeko.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2021eko irailaren 6an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Geroa Bai talde parlamentarioko parlamentari Mikel Asiain Torres jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko.

Zioen azalpena

Berriki aditzera eman denez, joan den abuztuaren 20ra arte Garapen Ekonomiko eta Enpresariako Departamentuan 1.735 eskaera baino ez da aurkeztu, hasieran aurreikusitako 12.500etatik, autonomoak eta profesionalak laguntzeko Estatuko funtseko 67,7 milioi euroko laguntzen deialdirako.

Hain zuzen ere, egun horretan amaitzen zen eskabideak aurkezteko epea, Gobernuak datorren irailaren 20ra arte luzatu duena.

Eskaeren kopuru urriak islatzen du baldintzak eta oinarriak, Madrildik ezarriak, ez direla egoki-

tzen sektorearen errealitatera, izapidetzea galarriz. Horrek ekarriko du funtsaren zati handia banatu gabe geratzea eta, horrenbestez, bete gabe geratzea hasieran funtsari egotzi zitzaizkion helburuak.

Horrela ohartarazi dute ukitutako sektore ekonomikoetako hainbat gremio-erakundek, zeinen salaketaren arabera ezarritako baldintzak, esate baterako, laguntzaren xedea zorra eta galerak ordaintzea izatea, itxiegiak dira eta ondorioa dute funts horien zati handi bat bete gabe geratzea. Erakunde horiek adierazi dutenez eskakizun horiek balizko dirulaguntzatik at uzten dituzte beren hornitzaile guztiekin ordainketetan egunera dauden profesionalak. Horri gehitu behar zaizkio hartzen diren konpromisoak, bereziki jarduera 2022ko ekainaren 30era arte mantentzekoa eta beren ordainsarrietan igoerarik ez onestekoa.

Eskarmentuak erakusten digu Nafarroako Gobernuak egindako aurreko laguntzen deialdietan banaketaren arrakasta askoz handiagoa izan dela.

Horregatik guztiagatik, agerikoa denez desadostasun nabarmena dagoela koronabirusaren pandemiak gogor zigortutako sektore horien beharrezan eta ezarritako laguntzetara iristeko aukeraren artean, deialdiko baldintzengatik, honako erabaki proposamen hau aurkezten dugu:

Nafarroako Parlamentuak Estatuko Gobernua premiatzen du Nafarroako Gobernuari aukera eman diezaion autonomo eta profesionalentzako laguntzen deialdiko baldintzak eta oinarri arautzaileak aldatzeko, gure erkidegoaren errealitatera egokitzeko, halako moduz non ahalik eta onuradun gehienengana iritsiko den, COVID-19aren pandemiak sortutako krisiak gogor zigortu dituen sektore horietan.

Iruñean, 2021eko abuztuaren 26an

Foru parlamentaria: Mikel Asiain Torres

Mozioa. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da aukera-berdintasuneko agentearen figuraren ziurtagiri profesionala onets dezan.

NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA ETA GEROA BAI TALDE PARLAMENTARIOEK ETA IZQUIERDA-EZKERRA TALDE PARLAMENTARIO MISTOAK AURKEZTU DUTE

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko irailaren 6an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroako Alderdi Sozialista eta Geroa Bai talde parlamentarioek eta Izquierda-Ezkerra talde parlamentario mistoak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Espainiako Gobernua premiatzen baita aukera-berdintasuneko agentearen figuraren ziurtagiri profesionala onets dezan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Eskubide Sozialetako Batzordean izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2021eko irailaren 6an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Behean sinatzen duten talde parlamentarioek, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako mozio hau aurkezten dute, Eskubide Sozialetako Batzordean eztabaidatzeko:

Zioen azalpena

2009an Berdintasun Ministerioak Federación Estatal de Asociaciones Profesionales de Agentes y Promotoras de Igualdad de Oportunidades elkarteari eskatu zion Estudio de la situación actual de la figura de Agente de Igualdad de Oportunidades de Mujeres y Hombres en España, y propuestas para la certificación profesional agiria eguneratzea.

Aipatu agirian jasotzen den bezala, emakumeen eta gizonen aukera-berdintasuna egiazkoa eta eragingarria izateko prozesuari gehitu behar dizkiogu hura azkartuko duten pertsonak, ekintzak eta metodoak. Prozesu horren gako bat da berdintasun-agentea, berdintasunaren alorreko prestakuntza espezializatua eta aditua duelako. Hala, modu profesionalean eskaintzen du aholkularitza, diagnostikoak, proposamenak, informazioa, diseinua eta bultzada abiarazi eta ebalua-

tu aldera emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako politikak.

Berdintasun-agenteak 80ko hamarkadatik ari dira lanean berdintasunaren alorrean. Ibilbide horrek guztiak egiaztatzen du berdintasun-agentearen lanbideak erabateko garrantzia duela generoaren arloko politika publikoak, nazioarteko erakundeek zein Estatuko, Nafarroako eta tokiko administrazioek bultzatzen eta sustatzen dituztenak, aurrera eraman daitezkeen epe labur, ertain eta luzean kalitate-bermeekin, haien eraginkortasuna eta efizientzia bermatzen dituztelako.

Esparru pribatuan eta sozialean ere beharrezkoa da figura profesional hori, aholkularitza eta laguntza emateko, enpresa politikan eta hirugarren sektoreko programa eta proiektuetan genero ikuspegia txertatzeari begira.

Araudiaren aldetik, 3/2007 Lege Organikoak arautzen du emakumeen eta gizonen arteko tratua eta aukera berdintasunaren printzipioa eta hura sartzeko botere publiko eta administrazio guztien jarduketa guztietan.

Prestakuntzaren aldetik, unibertsitateek prestakuntzako proposamenak dituzte graduondoko programetan. Era berean, Europako proiektuak izan ditugu figura profesional hori sustatzeko eta egonkortzeko plataforma gisa.

Hala ere, gaitasun profesionalak erabat definituta badaude ere, oraindik baditugu aniztasun eta desberdintasuneko edukiak eta profilak, premiazko sistematizazioa, antolaketa eta definizioa behar dutenak, adostuak, barneratzaileak eta gaian zeresana duten erakunde eta pertsona guztiek aitortuak. Alderdi hori beteko litzateke aukera-berdintasuneko agentearen figuraren ziurtagiri profesionalarekin.

Horixe eskatzen ari da duela hainbat urte Federación Estatal de Asociaciones Profesionales de Agentes y Promotoras de Igualdad de Oportunidades elkarteak, bai eta Asociación Profesional de Agentes de Igualdad en Navarra-NABALE elkarteak ere, zeinek erreibindikatzen baitute sektorearen profesionalizazioa eta espezializazioa, berdintasun politiken kudeaketa profesionalerako.

Berdintasun-agenteek unibertsitate-prestakuntza dute eta generoaren arloko espezializazioa; hartara, gaitasuna dute jarduera profesional kon-

plexuen multzo zabal batean eta testuinguru askotan. Horretarako elkartu behar dira aldagai teknikoak, zientifikoak, ekonomikoak eta antolaketakoak, ekintzak planifikatzeko eta proiektuak, prozesuak, produktuak edo zerbitzuak definitzeko edo garatzeko.

Beharrezkoa eta premiazkoa da figura profesional hori arautzea, ekidite aldera administrazio publikoetan eta enpresen arloan gertatzen den profilen intrusismoa, genero-berdintasunerako politikari dagokienez.

Hori guztia dela-eta, honako erabaki proposamen hau aurkezten dugu:

1. Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernua premiatzen du aukera-berdintasuneko agentearen figuraren ziurtagiri profesionala onetsi dezan, errege dekretu bat prestatu eta argitaratu, honako hauek bilduta:

– Ikasketa ofizialen antolamendua ezartzen duen urriaren 29ko 1393/2007 Errege Dekretuak jasotzen dituen parametroak.

– Prozesu bat ezartzea jarduna aukera berdintasunaren esparruan betetzen ari diren profesionalek bildutako esperientzia eta lortutako presta-

kuntza homologatzeko, Europako Goi Mailako Esparruan unibertsitateko irakaskuntzen egitura hori onetsi baino lehen.

– Ikasketa planek gaintu beharreko jarraibideak, baldintzak eta egiaztatze eta akreditatzeko prozedura ezartzea, aukera-berdintasuneko agenteen gaitasun profesionala ziurtatzen duten tituluak lortzeki begira.

– Ebaluaziorako prozeduraren ibilbiderako proposamen bat, emakumeen eta gizonen aukera-berdintasuneko agenteen prestakuntza egiaztatze, master mailako graduondoko programaren bidez: Unibertsitateko master ofiziala, politika publikoetara bideratua, ikasi beharreko gaietako hamar modulurekin, zeinak irakatsiko baitira irakaskuntza presentzian, erdipresentzian edo online, eta lan bat idaztea ere sartuta.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du berdintasunaren lurralde arteko batzordean lan egin dezan, aipatu arauketa lehenbailehen izateko.

Iruñean, 2021eko abuztuaren 26an

Foru parlamentariak: Nuria Medina Santos, Jabi Arakama Urriaga eta Marisa de Simón Caballero

Mozioa. Horren bidez, Europako Parlamentua premiatzen da bertan behera utz ditzan afganiar migratzaileei Europara heltzea eragozten dien Turkiarekiko akordioa eta Afganistanerako deportazioak.

MARÍA LUISA DE SIMÓN CABALLERO ANDREAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko irailaren 6an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Luisa De Simón Caballero andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Europako Parlamentua premiatzen baita bertan behera utz ditzan afganiar migratzaileei Europara heltzea eragozten dien Turkiarekiko akordioa eta Afganistanerako deportazioak

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari

ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2021eko irailaren 6an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Izquierda-Ezkerra talde parlamentario mistoaren eledun Marisa de Simón Caballero andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Parlamentu honen Osoko Bilkuran eztabaida dadin:

Zioen azalpena

Afganistango egoera, talibanek boterea hartu ostean, dramatikoa da. Populazio zibila –eta bereziki emakumeak eta umeak– talibanen erreprezioaren eta indarkeriaren arriskupean daude.

2008tik hona, 71.000 pertsona baino gehiago izan dira Eurpar Batasunetik Afganistanera deportatuak. Europar Batasunak Turkiarekin egindako akordioa, zeinaren ondorioz deportatu baitituzte afganiarrak, berehala eten beharko litzateke, herrialde ez-seguru batera eta pertsona horientzako arriskutsura deportatzea ekiditeko.

Kabuldik Espainiara eta beste herrialde batzuetara aberriratutakoen ebakuazioa nekeza izaten ari da, eta populazioaren gehiengo handi bat inolako babesik gabe geratzen ari da, Ameriketako Estatu Batuak eta NATOk aliatuak Afganistandik irten eta gero.

Afganistango gertakariak hain denbora gutxian gertatzeak administrazio guztiek urgentziaz esku hartzea eskatzen du, populazio zibilaren eskubiak eta babesak bermatzeko; bereziki, mehatxurik handiena pairatzen duten taldeena.

Espainiara aberriratutako pertsonak autonomia erkidegoetan banatzen ari dira, pertsona horiek hartuko dituzten udaletan banatzeko.

Espainiako Udalen eta Probintzien Federazioak badu harrerako udalen sare bat, behar den koordinazioa erraztuko duena udalen eta Nafarroako Gobernuaren artean, bai eta azken horren eta Gobernu zentralaren artean ere.

Hori guztia dela-eta, honako erabaki proposamen hau aurkeztu dugu:

1. Nafarroako Parlamentuak Europako Parlamentua premiatzen du bertan behera utz ditzan afganiar migratzaileei Europara heltzea eragozten dien Turkiarekiko akordioa eta Afganistanerako deportazioak.

2. Nafarroako Parlamentuak Europako Parlamentua premiatzen du korridore humanitario bat ezar dezan Afganistandik atera nahi duten asilo-eskatzaileentzat.

3. Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernua premiatzen du Europako Parlamentuan jardun dezan, korridore humanitario bat ezartzeko Afganistandik atera nahi duten asilo-eskatzaileentzat.

4. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du urgentziaz taxutu dezan harrera-plan bat eta udalei eska diezaien babes-hiri deklaratzeko, aberriratutakoak eta exiliatuak hartze aldera.

5. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du protokolo berezi bat ezar dezan egoera horretan diren emakume eta adingabeentzat, haien beharrezko emozionalak betetzeko.

Iruñean, 2021eko abuztuaren 26an

Foru parlamentaria: Marisa de Simón Caballero

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuko Osasun Departamentua premiatzen da zainketa aringarrien estrategia bat eta diziplina anitzeko unitate bat sor ditzan.

NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA ETA GEROA BAI TALDE PARLAMENTARIOEK, PODEMOS-AHAL DUGU FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK ETA IZQUIERDA-EZKERRA TALDE PARLAMENTARIO MISTOAK AURKEZTU DUTE

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko irailaren 6an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroako Alderdi Sozialista eta Geroa Bai talde parlamentarioek, Podemos-Ahal Dugu foru parlamentarien elkarteak eta Izquierda-Ezkerra talde parlamentario mistoak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuko Osasun Departamentua premiatzen baita zainketa aringarrien estrategia bat eta diziplina anitzeko unitate bat sor ditzan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2021eko irailaren 6an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Behean sinatzen duten talde parlamentarioek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkezten dute, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko. Mozioaren bidez, Osasun Departamentua premiatzen da zainketa aringarrien estrategia bat eta diziplina anitzeko unitate bat sor ditzan.

Zioen azalpena

Mendebaldeko herrialde garatuetan heriotzen % 50 baino gehiago ospitaletan gertatzen dira. Adin-talde guztietan datuak erakusten dute oso maiz agertzen direla kontrolatzeko zailak diren sintomak, teknologia gogaikarri eta onurarik gabearen erabilera handia, familien gainkarga garrantzitsua eta komunikazio arazoak, hurbilekoen geroko dolua zailtzen dutenak.

Oinarrizko zainketa aringarriak, lehen mailakoak, orokorrak edo ikuspegi aringarria dira paziente guztiei eman behar zaizkienak, oinarrizko osasun laguntzan zein laguntza espezializatuan. Berariazko zainketa aringarriak, bigarren mailakoak, espe-

zializatuak edo aurreratuak, zeinetan jasotzen baitira zainketa aringarrien lantaldeek egoera konplexuetan egindako esku-hartzeak. Zenbait egilek "hirugarren maila" deitzen diote zainketa aringarrien unitatean emandako arretari.

Gobernu Zentralaren Osasun Zerbitzu Nazionalaren zainketa aringarrien strategiaren arabera, 2007ko martxoan onetsi baitzen, zainketa aringarrien lantalde espezifikoek bermatu behar dute arretaren % 60 onkologiako pazienteentzat eta % 30 onkologiakoak ez direnentzat.

Populazioaren zahartzea eta egungo demografian eta morbiditatean dugun patroia direla-eta, uste izatekoa da datozen urteotan gehiago izanen direla gaixotasun kronikoa eta endekapenezkoak dituzten gaixoak eta, hortaz, gehiago izanen dira zainketa aringarriak beharko dituztenak.

Zainketa horien premian egonen diren pazienteak izaten dira minbizi aurreratua dutenak, patologia kronikoa dituztenak, hala nola neuroendekapenezkoak, dementziak, bihotz-, arnasketa-, giltzurrun-gutxiegitasuna eta, oro har, bizi estutasuneko edo konplexutasun handiko edozein gaixotasun dagoenean.

Gaur egun, minbizi aurreratua duten pertsonen kopurua handituz doa egunetik egunera, eta horrekin batera beren gaixotasunak sortutako sintomekin bizi behar dutenena. Profesional espezializatuak sintoma horiek egoki kontrolatzeak, zenbaitetan tratamendu aktiboekin batera, pertsona horien bizi kalitatea handituko du eta ospitaleratze kopurua murriztuko. AECC elkartearen arabera, zainketa horiek behar dituzten pazienteetatik bakarrik % 14k jasotzen ditu.

Zainketa aringarrien arloan Nafarroan aurkeztutako azken gida 2009koa da. Horregatik uste dugu komenigarria dela estrategia berri bat bultzatzea, berriki onetsi den eutanasiari buruzko legearekiko modu paralelo eta osagarrian.

Horregatik guztiagatik, sinatzen dugun talde parlamentariook honako erabaki proposamen hau aurkeztu dugu:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuko Osasun Departamentua premiatzen

du Nafarroan bultza dezan zainketa aringarrien estrategia berri bat, honako puntu nagusi hauek jasoko dituena:

- Zainketa aringarriak bermatzea Nafarroako Foru Komunitatean behar dituzten guztiei, edozein dela ere haien kokapena, etxeko laguntzarako zainketa aringarrien unitate bat sortuz.

- Baliabide materialak eta profesionalak eskaintzea, hala nahi dutenak, beren egoerak ahalbidetzen baldin badu, etxean zendu ahal izan daitezen, beren hurbilekoek lagunduta.

- Arreta psikologikoa eskaintzea pazienteari eta haren familiari, hil ondoko dolu osasungarri bat errazteko.

- Profesionalentzako prestakuntza plan bat abiaraztea, zainketa aringarrien eta bizitzaren bukaerako arretaren ingurukoa

- Zabalkunde plan bat egitea aurretiazko borondateen agiriari buruzkoa, osasuneko profesionalak gidatua, jendeari informazioa emanen eta balizko egoerak zein norberak erabakitzearen garrantzia azalduko dutenak.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuko Osasun Departamentua premiatzen du Nafarroako Ospitalegunean zainketa aringarrietako diziplina anitzeko unitate bat sor dezan, langile espezializatuek osatua, baliabide ekonomikoak optimizatuz eta osasun sistema jasangarriago bihurtuz, pertsona eta familia askoren desioak gogobetetzeko eta heriotzaren une ekidinezina humanizatzeke.

Iruñean, 2021eko irailaren 1ean

Foru parlamentariak: Patricia Fanlo Mateo, Ana Ansa Ascunce, Mikel Buil García eta Marisa de Simón Caballero

Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bat egiten baitu Gazteriaren Nazioarteko Eguna dela-eta abuztuaren 12an izan diren ospakizunekin.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, 2021eko irailaren 6an egindako bilkuran, honako adierazpen hau onetsi zuen:

"Nafarroako Parlamentuak honako hau erabaki du:

1. Bat egiten du Gazteriaren Nazioarteko Eguna dela-eta abuztuaren 12an izan diren ospakizunekin.

2. Nafarroako Gobernuari eskatzen dio lan egiten jarrai dezan, politika publikoek beti izan deza-

ten gazte-ikuskerak, gazteriak pairatzen dituen desberdinkeria partikular eta berariazkoak mozteko.

3. Nafarroako gazteriari eragiten dioten politikak egiteko prozesuetan Nafarroako gazteriaren parte-hartzea bermatu nahi du, kolektibo horren zeharkakotasuna aintzat hartuta" (10-21/DEC-00043).

Iruñean, 2021eko irailaren 6an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bat egiten baitu heldu den irailaren 10ean egitekoa den Suizidioaren Prebentziorako Mundu Egunarekin.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETZIA

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, 2021eko irailaren 6an egindako bilkuran, honako adierazpen hau onetsi zuen:

“2003az geroztik, Suizidioaren Prebentziorako Nazioarteko Elkarteak, Osasunaren Mundu Erakundearekin elkarlanean, Suizidioaren Prebentziorako Mundu Eguna sustatu du irailaren 10ean urtero. Egun hori pentsatuta dago mundu osoko herritarrek bat egin dezaten eta arazoaz kontzientzia har dezaten.

Nafarroako Parlamentuak bat egiten du Suizidioaren Prebentziorako Mundu Egunarekin, zeina irailaren 10ean izanen baita, eta Parlamentuaren fatxada laranja kolorez argizatzea erabaki du, helburu bikoitzarekin: herritarrak suizidioaren erre-alitatea eta egun horren garrantzia direla-eta sentzibilizatzea eta suizidioaren prebentzioarekiko konpromiso irmoa erakustea. Funtsezkoa da jokatibide suizidak edo osasun mentaleko arazoak direla-eta laguntza bilatzen ari direnen estigmatizazioa ekiditea eta suizidatu direlako gertu-gertuko pertsona bat galdu dutenak babestea, kolektibo hori historikoki izan baita ulertu gabea eta ikusmiratik desagerrarazia.

Galdutako bizitza bakoitzaren atzean bikotekide, seme-alaba, aita, ama, laguna edo adiskidea daude. Suizidio bakoitzak senitarteko eta lagun askoren hondamen emozional, sozial eta ekonomikoa dakar. Suizidio bakoitzarengatik, gutxi gorabehera 135 pertsonak dolu konplexua pairatzen dute. Suizidioa osasun publikoko arazo tragikoa da mundu osoan. Suizidioaren prebentzioa erronka izaten jarraitzen du mundu mailan; izan ere, urtero dago adin guztietako pertsonen 20 heriotza-zio nagusien artean. 800.000 heriotzaren erruduna da; hau da, 40 segundoero, suizidio bat. Espainian kanpo-heriotzaren lehen zioa da. Espainian kanpo-heriotzaren lehen zioa da.

Portaera suizidak suizidioa barne hartzen du, baina baita ideia-gintza suizida ere, nor bere buruari kalte egiteko jokabideak eta suizidio-saiakerak ere. Osasunaren Mundu Erakundearen esanetan, suizidio bakoitzeko 20tik 25 saiakerara bitarte gertatzen dira, eta askoz ere gehiago dira suizidatzeko aukera goioan serio darabiltenak.

Suizidioa arriskuko hainbat faktorek bat egitearen ondorioa da: genetikoak, psikologikoak, sozia-

lak, kulturalak eta abar; sarri, bestelako trauma-eta galera-esperientzien eskutik heldu da. OMEK 2020ko martxoan COVID-19aren pandemia deklaratu zuenetik, nabarmen igo da krisian egonik galerak, sufrimendua eta estresa bizi izan dituzten pertsonen kopurua, eta hori ere arrisku-faktore bat da.

Bere buruaz beste egiten duten pertsonen talde heterogeneoa osatzen dute, arrazoi bakar, konplexu eta multifazetikoak dituzte, beren azken ekintza horren atarian. Heterogenotasun hori erronka handia da suizidioaren prebentzioaren arloko adituendako. Erronka horiei maila eta diziplina anitzeko ikuskerarekin heldu behar zaie, kohesio-ikuskerarekin.

Suizidioaren prebentzioa erdigunean jartzea bereziki garrantzitsua da lotura sozial sortzeko, kontzientzia-hartzea sustatzeko eta esperantza eskaintzeko. Maite ditugunengana beren osasun mentalaz eta ongizateaz galdezka hurbiltzeak haien bizitza salbatzea eragin lezake.

Nafarroako Parlamentuak bat egiten du suizidioaren prebentzioak ikuskera berritzaile, integral eta multisektoriala izan behar duelako ideiarekin, horretan parte hartu behar luketelako osasunaren, hezkuntzaren eta lanaren sektoreek, polizia, justiziak, erlijioak, zuzenbideak, politikak eta hedabideak.

Nafarroako Parlamentuaren ustez, funtsezkoa da gizartea suizidioaren arloan hezteko eta sentzibilizatzea; eta beste horrenbeste osasungintzako profesionalak, eragile sozialak, erkidegokoak eta hedabideetako profesionalak.

Nafarroako Parlamentuak aldeztu egiten ditu suizidioaren prebentziorako estrategiak: pertsona eta kolektibo zaurgarrien identifikazio goiztiarra, osasun mentaleko zerbitzuetarako sarbidea eta asistentzia, alkoholaren kontsumoaren gaineko politikak, bitarteko hilgarriak eskuratzeko mugak ezartzea, telefono nahiz Internet bidezko laguntza-lerroak, eskolako prebentzioa. Gainera, etorkizun oparoko estrategiak dira esku-hartze psikosozialak, suizidioaren prebentziorako zentroak eta eskolako prebentzioa.

Nafarroako Parlamentuaren ustez, beharrezkoa da hedabideek modu arduratsuan jorratzea

suizidioei buruzko albisteak, sentsazionalismoan erori gabe” (10-21/DEC-00048).

Iruñean, 2021eko irailaren 6an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak arbuiatu egiten baititu bereziki Iruñeko Alde Zaharrean gertatutako ekintza bandalikoak eta gizalegearen nahiz elkartasunaren aurkako jokabideak.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, 2021eko irailaren 6an egindako bilkuran, honako adierazpen hau onetsi zuen:

“1. Nafarroako Parlamentuak arbuiatu egiten ditu bereziki Iruñeko Alde Zaharrean gertatutako ekintza bandalikoak eta gizalegearen nahiz elkartasunaren aurkako jokabideak, eta elkartasuna adierazten die kaltetutako pertsoneri; bereziki, Alde Zaharreko bizilagunei.

2. Nafarroako Parlamentuak apustu egiten du erakundeen eta auzo-, ostalaritza- nahiz gazte-elkarteen arteko elkarrizketaren alde, aisialdiaren

gaineko alternatiba eta konponbide adostuak bilatzeko denik eta azterketarik zabal eta sakonetik abiatuta.

3. Nafarroako Parlamentuak goratu eta eskertu nahi ditu Nafarroako gizarteak pandemian zehar egindako ahalegin handia eta erakutsitako konpromiso eta inplikazio handia, eta elkarrenganako zaintzaren eta ondasun komunaren aldeko hautua egiten du, jarrera indibidualista eta elkartasunik gabekoen aldean” (10-21/DEC-00049).

Iruñean, 2021eko irailaren 6an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

F saila:
GALDERAK

Galdera, Nafarroan espezie eta bektore inbaditzaileek osasunerako dakarten arriskua kontrolatzeari buruzkoa.**FORU DIPUTAZIOARN ERANTZUNA**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Cristina Ibarrola Guillén andreak Nafarroan espezie eta bektore inbaditzaileek osasunerako dakarten arriskua kontrolatzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2021eko ekainaren 29ko 87. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2021eko uztailaren 29an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Cristina Ibarrola Guillén andreak idatzizko galdera aurkeztu du (10-21/PES-00224), zeinaren bidez informazioa eskatzen baitu "espezie exotikoetatik osasunari begira heldu diren arriskuen kontrolari buruz". Hona Nafarroako Gobernuak Osasuneko kontseilariak horri buruz eman beharreko informazioa:

1. Nafarroako Gobernuak zer egiturak jorratzen du berariaz espezie exotikoetatik eta bestelako batzuetatik osasunari begira heldu diren arrisku horien kontrola? Nola koordinatzen dira gaixotasun infekzioso berrien gaineko jarduketak, erronka berri horiei aurre egiteko profesional espezializatuak edukitzeko?

2016an Osasun Ministerioak abian jarri zuen "Bektoreek transmititutako gaixotasunen aurrean prestatzeko eta erantzuteko Plan Nazionala". Hori oinarri, urte berean Nafarroan abian jarri zen "Tigre eltxoaren (*Aedes albopictus*) zaintza entomologikorako Plana".

Aedes albopictus, "tigre eltxo" izenez ezagutu ohi dena, espezie exotiko inbaditzaile bat da, osasun publikoari begira garrantzia duena eta bektore izan daitekeena zenbait gaixotasunen kasuan, esate baterako, dengea, chikungunya eta zika. In-

tsektu horrek hegan egiteko autonomia txikia du, marra tengradunak ditu eta eguneko ohiturak ditu; horregatik, goizean eta ilunabarrean ziztatu ohi du. Emeek arrautza ugari jartzen dituzte eta ziztadak eragiten dituzte, oro har oso gogaikarriak; hori dela eta, jendeak azkar hautematen dituzte.

Arrisku horiek saihesteko, egon daitezkeen kasuen zaintza epidemiologikoa eta mikrobiologikoa eta eltxoaren presentzia goiz detektatzeko eta kontrolatzeko zaintza entomologikoa funtsezko elementuak dira arriskua ebaluatzeko eta *Aedes albopictus* transmititutako gaixotasunak prebenitzeko eta kontrolatzeko neurriak aplikatzeko.

Espezie inbaditzaile hori bizi eta hazten da, batez ere, ugaltzeko egoki dituen hiriguneetan eta hiri-inguruetan. Gutxi desplazatzen da bizitzan zehar, 50 eta 200 metro artean, eta beti jaiolekua inguruan. Tigre eltxoaren zaintza "Tigre eltxoaren (*Aedes albopictus*) zaintza entomologikorako Plana" ren barruan kokatzen da, gure erkidegoan eltxoa iritsi dela detektatzeko eta hura agertuz gero azkar erantzuteko protokolo bat izateko. Intsektuaren zaintza entomologikoa honetan datza: obitrapak jartzen dira, ontzi beltz txikiak, 250 ml-ko urarekin. Ontzi horietan zur porotsuzko oholtxo bat sartzen da, eta eltxo emeak, bertan badago, oholtxoarekin kontaktuan dagoen uraren gainazalean jartzen ditu arrautzak. Langileek astero edo hamabostean behin jasotzen dituzte laginak, zonaldeen arabera.

Zaintza Plana LIFE-NAdapta proiektuaren osasun arloko ekintzetan kokatu da, zehazki, klima-larrialdiak (hiri-ingurunea) prebenitzeko eta kudeatzeko lerroan, eta bere ekintzetako bat izan da gaixotasun berriak transmititzen dituzten bektore inbaditzaileak, aldaketa klimatikoak indartzen ahal dituenak, zaintzeari eta kontrolatzeari lotutako esku-hartze sanitarioko protokoloak egokitzea. Zehazki, C5.5 ekintza da, giza gaixotasunen bektore inbaditzaileak detektatzeko zaintza garatzeko. Bertan, Nafarroan tigre eltxoaren (*Aedes*

albopictus) zaintza entomologikorako Plana txertatu da, NOPLOIk ingurumen-arriskuei begira osasuna babesteko garatzen duen proiektuarekin lerrokatuta.

Plan honetan jasotako jarduerak Nafarroako Ingurumen Osasunaren Atalak (Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutua) koordinatzen ditu, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuaren eta Iruñeko eta Tuterako udalen laguntzarekin.

Plana maiatzetik azarora bitartean garatzen da, baina aldi hori baldintza klimatologikoen arabera alda daiteke.

Halaber, NOPLOItik eta Epidemiologiaren eta Osasun Prebentzioaren Zerbitzuko Gaixotasun Transmisigarrien eta Txertaketan Ataletik, Nahitaez aitortu beharreko gaixotasunen (EDO) bidez zaindu egiten dira bektoreen bidez transmititzen ahal diren gaixotasunak, hala nola denge, zika eta chikungunya; 2020an ez da horietako kasu autoktonorik deklaratu.

2019ko eta 2020ko planetan, arrautza batzuk eta heldu bat identifikatu dira jarritako tranpetan. 2021. urte honetan eta orain arte, jasotako lagin guztiak negatiboak izan dira.

Arriskua baloratzeko eta horren arabera egin beharreko jarduerak zehazteko, Plan Nazionalean ezarritako irizpideei jarraitzen zaie.

Horregatik, adierazitako urteetan arrautzak eta heldua agertu direnez, egindako esku-hartzeez gain, esate baterako tratamendu larbizidak eta

adultizidak, zaintza entomologikoa areagotu da tranpa positiboan ingurunean.

2016tik aurrera egindako kanpainen emaitzak aztertuta, Nafarroan tigre eltxoak transmititzen ahal dituen gaixotasunen zaintza epidemiologikoko datuez gain, ondorioztatzen da Foru Komunitateak jarraitzen duela zero arriskua mantentze zika birusaren eta eltxo horrek kutsatzen dituen dengea bezalako beste patologia batzuen transmisio autoktonoaren aldetik.

NOPLOItik, eskura dituen giza baliabideen eta baliabide materialen arabera, zaintza-plana gizakiei gaixotasunak transmititzen dizkieten beste bektore interesgarri batzuetara zabaltzeko aukera aztertuko litzateke, hala nola Culex pipiens (Niloko sukarra), kaparrak eta euli beltza, besteak beste.

Landa Garapeneko Departamentua abeltzaintzan gaixotasun berriak transmititzen dituzten intsektu bektoreak kontrolatzeko lanean ari da.

Gaur egun, bektoreen Mahai Teknikoa jarri da abian. Bertan parte hartzen dute Osasun Departamentuak, NOPLOIko Ingurumen Osasunaren Atalaren bidez, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuak eta INTIA eta GAN-NIK bezalako enpresa publikoek, gaixotasunak transmititzen dituzten bektoreekin lotuta erakundeek egiten dituzten jarduketa guztiak koordinatzeko.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2021eko uztailaren 29an

Osasun kontseilaria: Santos Induráin Orduna

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Nafarroako Kontuen Ganberaren Antolaketari buruzko Erregelamendua- ren aldaketa

Kontuen Ganberako lehendakariaren 2007ko otsailaren 16ko ebazpenaren bidez onetsi zen erakunde horren antolaketari buruzko erregelamendua; geroago, 2012ko urtarrilaren 20ko eta 2019ko urtarrilaren 16ko ebazpenen bidez, erregelamendu hori aldatu zen, halako moduan non 7. bis artikulua sartu baitzen, sistema informatikoetako ofizial teknikoaren lanpostuari dagozkion eginkizunak eta titulazioa arautzen dituena, bai eta 7. ter artikulua ere, zeinak sistema informatikoetako gradu ertaineko teknikariari dagozkion lanpostuaren mendekotasuna, eginkizunak eta titulazioa arautzen baititu.

Kontuen Ganberaren 2017-2022 eperako plan estrategikoak bere helburu estrategikoen artean aurreikusten du auditoretza informatikoa ezartzea, fiskalizazio-prozedurak aldaketa teknologikoei egokitzearen.

Bestalde, sektore publikoko entitate ikuskatuek informazio-sistema automatizatueterako eta prozesamendu elektronikorako trantsizioa egiteak aldakuntza nabarmena eragin du Kontuen Ganberak lantzen duen ingurunean. Gaur den egunean, gure erakundearen fiskalizazio-lanak konplexutasun ertain edo altuko ingurune informatizatueta egiten dira, eta horrek, aplikatzekoak diren auditoretza-arauen arabera, behartzen du informazio-sistemen teknologian eta sistema horien auditoretzan espezializaturiko giza balibideak esleitzea.

Erakunde honetako Sistema Informatikoetako Teknikariak dira ingurune informatizatueta auditoretza eta fiskalizaziorako beharrezkoak diren eginkizunak betetzen ari direnak; alabaina, Kontuen Ganberaren Antolaketari buruzko Erregelamendu indardunak ez dizkie teknikari horiei aipatu eginkizunak argiro esleitzen, eta halaber eginkizun horiek ez ditu zehazten.

Ondorioz, bidezkoa da Antolaketari buruzko Erregelamendu hori eguneratu eta osatzea, Sistema Informatikoetako Teknikari diren langileen

eginkizunen artean jasoz informazio-sistemen auditoretzak egiteari dagozkionak; hots, informazioaren teknologien kontrol orokorrak eta aplikazio-kontrolak berrikustea eta erakunde honen fiskalizazio-lanetan proba substantiboak egitea.

Beraz, beharrezko gertatzen da Kontuen Ganberaren Antolaketari buruzko Erregelamenduko 7. eta 7.ter artikulua aldatzea eta haiei testu berria ematea, Sistema Informatikoetako Teknikari diren langileen eginkizun gisa barne har ditzaten informazio-sistemen auditoretzak egitekoa eta haiek ingurune informatizatueta fiskalizazioetan parte hartzekoa; horrenbestez, lehendakaritza honek, erakundeko idazkari nagusiak proposaturik, Ganberako auditoreei eta sistema informatikoetako teknikariei entzunda eta erakundeko Langileen Batzordearen txostena ikusita, bere ahalmen eta eskumenak egikaritzuz, eta Kontuen Ganbera arautzen duen Foru Legeko 6.2 eta 15.2. d) artikuluek xedatuari jarraikiz, non lehendakaritza honen eskumen gisa ezartzen baita erakundearen antolaketari eta barne gobernuari dagozkiona,

EBATZI DU:

1.- Aldatzea, ebazpen honen I. eranskinean azaldutako moduan, 2007ko otsailaren 16ko ebazpenaren bitartez onetsiriko Nafarroako Kontuen Ganberaren Antolaketari buruzko Erregelamenduko 7. eta 7.ter artikulua.

2.- Ebazpen hau Nafarroako Parlamentuko Mahaiari igortzea, honen berri izan dezan eta Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratua izatea agin dezan. Ebazpena orobat igorriko zaie Ganberako idazkari nagusiari, administratzaileari, kontu-hartzaileari, sistema informatikoetako goi-mailako eta maila ertaineko teknikariei eta Langileen Batzordeari, honen berri izan dezaten.

Iruñean, 2021eko abuztuaren 6an

Lehendakaria: Asunción Olaechea Estanga

I. eranskina**7. artikulua.**

1. Idazkari nagusiaren goi mailako zuzendaritzapean, sistema informatikoetako goi mailako teknikariek honako eginkizun hauek beteko dituzte:

a) Ganberako auditoreei fiskalizazio-prozedurei buruzko aholkularitza ematea. Ingurune informatizatuetako auditoretza-prozeduren eta -programen plangintzan eta prestaketan laguntzea.

b) Ente fiskalizatuetako informazio-sistemen berrikuspena egitea, fiskalizazio-taldeekin koordinaturik. Fiskalizazio-lanaren ardura duen auditoreak onespena eman ondoren, zentro eta zerbitzu fiskalizatuei eskatzea ardurapean dauzkan lanak egiteko beharrezkoa den informazio guztia.

c) Beharrezkoa duten fiskalizazio-prozedura guztietan planifikatu eta taxutzea informazio-erazpen, -eraldaketa, -karga eta -analisirako zereginak, lanaren arduradun den auditorearekin lankidetzan.

d) Plangintza-memorandumean aurreikusitakoari jarraituz, egindako berrikuspena oinarritzen duten paperak eta dokumentazioa prestatu eta lanaren arduradun den auditoreari aurkeztea, eginiko kontrolari buruzko datu eta gorabehera garrantzitsuenak aipatzen dituen laburpen moduko txosten batekin batera.

e) Ingurune informatizatuetako auditoretza-prozeduren eta -programen prestaketan laguntzea.

f) Kontuen Ganberan lanabes informatikoen erabilera planifikatu eta garatzea, eta hobekuntzak proposatzea aplikazioen produktibitateko eta haien garapenerako, Ganberako lanpostu zehatzei dagokienez.

e) Instalaturiko ekipoen eta programen mantentze-lana gainbegiratzea, eta haien segurtasuna bermatzeko kontrolak eta neurriak ezartzea.

g) Kontuen Ganberako lehendakariak edo idazkari nagusiak eskatzen dizkieten antzeko eginkizun guztiak beteko dituzte, baldin beren jakintza-arloari badagozkio.

2. Sistema informatikoetako goi mailako teknikari lanpostua beteko duenak eduki beharreko titulua izanen da Informatikako lizentziatua, Ingeniaria edo Goi Mailako Arkitekto Teknikoa, edo ofizialki baliokidetzat deklaraturiko titulazio bat zeinak, indarreko ikasketen-planen arabera, gaitu eginen baitu esleituriko eginkizunekin zerikusia duten jarduera profesionalak egikaritzeko.

7. ter artikulua.

1. Idazkari nagusiaren goi mailako zuzendaritzapean, sistema informatikoetako maila ertaineko teknikariek honako eginkizun hauek beteko dituzte:

a) Esleituriko fiskalizazio-lana hobeki egiteko ezagutu beharrezkoa den dokumentazio tekniko biltzea, arduradun den auditorearengandik eta sistema informatikoetako goi mailako teknikariarengandik jasotako jarraibideak betez.

b) Auditoreek eta sistema informatikoetako goi mailako teknikariak zehazten dizkieten irizpideei jarraituz, proba egokiak egitea, kontrol orokorren betetzeari, aplikazio-kontrolari eta unean uneko kontrolpeko prozedura substantiboari buruzkoak, bai eta beharrezkoak diren informazio-erazketa, -eraldaketa, -karga eta -analisirako eginkizunak ere.

c) Beren eginkizunetan aritzean zer konklusio eta emaitzatara iritsi diren jakinaraztea auditoreei eta sistema informatikoetako goi-mailako teknikariari.

d) Fiskalizazio-lantaldeari agindutako lana planifikatu eta antolatzeari dagokionez auditoreekin eta sistema informatikoetako goi mailako teknikariarekin lankidetzan aritzea, bai eta eginiko kontrol-lanean iritsitako behin-behineko emaitza eta konklusioen berrikuspenean ere.

e) Auditoreei eta sistema informatikoetako goi mailako teknikariari helaraztea beren lana hobeki egiteko beharrezkotzat jotzen dituzten proposamen eta iradokizunak.

f) Ganberako sistema informatikoetako goi mailako teknikariari laguntzea Kontuen Ganberan lanabes informatikoak garatzen eta ezartzen, eta hobekuntzak proposatzea aplikazioen produktibitateko eta haien garapenerako, Ganberako lanpostu zehatzei dagokienez.

f) Sistema informatikoetako goi-mailako teknikariak eta Kontuen Ganberako langileek eska diezazkieketen antzeko eginkizun guztiak, haien titulazioari eta ezagutza-arloari dagozkienak.

2. Sistema informatikoetako maila ertaineko teknikariaren lanpostua beteko da unibertsitateko diploma, ingeniaritza teknikoko edo arkitektura teknikoko titulua edo horien baliokide deklaraturiko titulua gutxienez ere badaukaten pertsonekin, edo lizentzia, ingeniaritza edo arkitektura bateko nahiz ofizialki horien baliokide deklaraturiko beste titulu bateko lehen hiru ikasmaila osoak gaindituta dituztenekin.

H saila:
BESTELAKO TESTU ARAU-EMAILEAK

3/2021 Legegintzako Foru-dekretua, uztailaren 14koa, Tributu Harmonizazioari buruzkoa, balio erantsiaren gaineko zerga eta energia elektrikoaren ekoizpenaren balioaren gaineko zerga aldatzen dituen.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko irailaren 6an eginiko bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Gobernuak honako Legegintzako Foru Dekretuaren ziurtagiria igorri du: “3/2021 Legegintzako Foru-dekretua, uztailaren 14koa, Tributu Harmonizazioari buruzkoa, balio erantsiaren gaineko zerga eta energia elektrikoaren ekoizpenaren balioaren gaineko zerga aldatzen dituena”.

Kontuan harturik Nafarroako Gobernuari eta Lehendakariari buruzko 14/2004 Foru Legearen 53. artikuluan eta Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 162. artikuluan xedatutakoa, honako hau ERABAKI DA:

1. Adieraztea uztailaren 14ko Tributu Harmonizazioari buruzko 3/2021 Legegintzako Foru-dekretuaren berri izan duela, zeinaren bidez aldatzen baitira balio erantsiaren gaineko zerga eta energia elektrikoaren ekoizpenaren balioaren gaineko zerga.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2021eko irailaren 6an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

3/2021 Legegintzako Foru-dekretua, uztailaren 14koa, Tributu Harmonizazioari buruzkoa, balio erantsiaren gaineko zerga eta energia elektrikoaren ekoizpenaren balioaren gaineko zerga aldatzen dituen

Estatuaren eta Nafarroako Foru Komunitatearen arteko Hitzarmen Ekonomikoaren I. tituluan, Nafarroako tributu-araubidea Estatuko tributu-araubide orokorrarekin harmonizatzeko irizpideak arautzen dira.

Esparru horren barnean, aipatutako Hitzarmen Ekonomikoaren 31 bis eta 32. artikuluek ezartzen dute ezen energia elektrikoaren ekoizpenaren balioaren gaineko zerga eta balio erantsiaren gaineko zerga ordainarazteko, Nafarroak aplikatuko dituela une oro Estatuko lurraldean indarra duten arau substantibo eta formal berak. Hala ere, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak aitorpena eta ordainketak egiteko ereduak onesten ahal ditu, gutxienez ere lurralde erkideko datu berak edukiko dituztenak, eta likidazioaldi bakoitzean ordaintzeko epeak finkatzen ahal ditu, Estatuko Administrazioak ezartzen dituenetatik funtsean alden du gabe.

Bestetik, Nafarroako Gobernuari eta Lehendakariari buruzko abenduaren 3ko 14/2004 Foru Legeak, 53.1 artikuluan, Nafarroako Gobernuaren araugintzarako ahalmena erregulatzean ezartzen duenez, baldin tributu-araubide erkideko aldaketa batek behartzen badu estatuan indarra duten arau substantibo eta formal berberak Foru Komunitatean aplikatzera Hitzarmen Ekonomikoan ezarritakoarekin bat, Nafarroako Gobernuak eman ditzake tributu arloko foru legeak aldatzeko behar diren foru lege mailako arauak, Nafarroako Parlamentuak eskuordeturik. Nafarroako Gobernuaren xedapen horiei “tributu harmonizaziorako legegintzako foru dekretu” izena emanen zaie baldin

aipatutako legegintzarako eskuordetzearen ondorio badira, 14/2004 Foru Legearen 53.2 artikuluan xedatutakoari jarraikiz.

Ekainaren 24ko 12/2021 Errege Lege-dekretuaren bidez presako neurriak hartzen dira fiskalitate energetikoaren esparruan eta energiaren sorkuntzaren arloan, bai eta uraren erregulazio-kanonaren eta uraren erabilera tarifaren kudeaketaz; horrek aldaketa ekarri du balio erantsiaren gaineko zergaren eta energia elektrikoaren ekoizpenaren balioaren gaineko zergaren araudian.

Neurri horien helburua izan da energia elektrikoaren fakturaren gaineko inpaktu fiskala gutxitzea, elektrizitatearen ohiz kanpoko prezio igoera arintzeko, zeinak, batetik, alarma soziala eragin baitu eta, bestetik, etxeetako errenta erabilgarrian ondorio kaltegarriak baititu eta suspertzerako traba bat baita COVID-19aren ondoko egoera honetan. Horrekin batera, mehatxua dakar “deskarbonizazioa” lortzeko Espainiak eta Europar Batasunak bere gain hartu duten agendarako, arriskuan jartzen duelako ekonomia elektrifikatzeko prozesua, hau da, energiaren erabilerari lotutako emisioak murrizteko bide efiziente eta eraginkorra, eta gero eta mesfidantza handiagoa sortzen duelako trantsizio energetikoaren prozesuan.

Balio erantsiaren gaineko zergari dagokionez, elektrizitatearen prezioen igoerak sortutako egoerari erantzuteko, azaroaren 28ko 2006/112/EE Zuzentarauaren mugak errespetatuz, salbuespenez eta aldi baterako beherapen bat ezartzen da 2021eko abenduaren 31 bitarte, betiere 10 kW-etik beherako potentzia finkoa duten energia elektrikoaren kontratueterako. Beherapenaren ondorioz, BEZaren zerga-tasa ehuneko 21etik 10era jaisten da, eta faktura elektrikoaren osagai guztiei aplikatuko zaie, baldin eta fakturazioaren aurreko hilabetean handizkako merkatuko hileko batez besteko prezioa 45 eurotik gorakoa izan bada MWh-ko, eta helburua da haren zenbatekoa jais-tea.

Kontuan hartu beharra dago muga hori, 45 eurokoa MWh-ko, lotuta dagoela Espainian elektrizitatea epean entregatzeko 2021erako kontratuak 2020ko abenduan izandako batez besteko kotizazioarekin, zeina, 2021eko bigarren erdirako 83,32 euroko zenbatekoan ezarri baita MWh-ko; 45 euroko muga, hortaz, etorkizunean merkaturako espero diren prezioetatik behera dago.

Neurri hori aplikatzen zaie energia elektriko hornitzeko kontratu guztiei baldin eta kontratatutako potentzia 10 kW-etik beherakoa bada, eta horrek esan nahi du, azken finean, aplikatzen

zaiela amaierako kontsumitzaile diren etxe ia guztiei, etxeko kontsumitzaileek kontratatutako batez besteko potentzia 4,1 kW ingurukoa delako. Neurria langile autonomo askorentzat ere onuragarria izanen da.

Bestalde, kontsumitzaile ahulenen pobrezia energetikoaren egoerari aurre egiteko, elektrizitate hornitzeko kontratuen titularrei ehuneko 10era jaisten zaie faktura elektrikoan aplikatu beharreko BEZaren zerga-tasa baldin eta bonu soziala kobratzen badute eta, horrez gain, ahul larriaren edo gizarte bazterketaren arriskuan dagoen ahul larriaren izaera aitortua badute; hala izanen da lege-dekretuaren indarraldi osoan, zein den ere handizkako merkatuan elektrizitateak duen prezioa.

Aurrekoaren osagarri, ekainaren 24ko 12/2021 Errege Lege-dekretuan, handizkako merkatuan elektrizitatearen prezioa ezartzen duten enpresak, gas naturalaren eta CO₂aren emisio eskubideen prezioaren bilakaera dela eta, jasaten ari diren kostu handiagoak konpentsatzearen, egokitzen josten da murriztea eragiketa kostuetako beste bat; energia elektrikoaren ekoizpenaren balioaren gaineko zerga alegia.

Horrela, prezio lehiakorragoak eskaini ahal izanen dituzte berriz, kontsumitzaileen mesederako.

Horrenbestez, salbuespen gisa eta 2021eko hirugarren hiruhilekoan, elektrizitatea ekoizti eta sistema elektrikoan sartzten duten instalazioak salbuetsirik egonen dira energia elektrikoaren ekoizpenaren balioaren gaineko zerga ordaintzetik. Horrek berekin dakar aldatzea zerga-oinarriaren kalkulua eta tributuaren araudian araututako ordainketa zatikatuak.

Horregatik, tributu harmonizaziorako legegintzako foru dekretu hau eman behar da, aipatutako zergei dagokienez Foru Komunitatean aplikatu daitezkeen estatuan indarrean diren arau substantibo eta formal berberak.

Horiek horrela, Nafarroako Gobernuak, Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariak proposatuta, eta Nafarroako Gobernuak bi mila eta hogeita bateko uztailaren hamalauan egindako bilkuran hartutako erabakiarekin bat,

DEKRETATZEN DUT:

1. artikulua. Energia elektrikoaren erkidego barruko zenbait entrega, inportazio eta erosketari balio erantsiaren gaineko zergan aplikatu beharreko zerga-tasa.

Ondorioak izanik 2021eko ekainaren 26tik aurrera, eta indarraldia, berriz, 2021eko abendua-

ren 31ra artekoa, balio erantsiaren gaineko zergan ehuneko 10eko zerga-tasa aplikatuko zaie erkidego barruan honakoen alde egiten diren energia elektrikoaren entrega, inportazio eta erosketei:

a) Elektrizitatez hornitzeko kontratuen titularrak, potentzia kontratatua (potentzia finkoa) 10 kW-ekoa edo txikiagoa denean, edozein dela ere horniduraren tentsio maila eta kontratazio mota, baldin eta eguneroko merkatuko batez besteko prezio aritmetikoa, fakturazio epeko azken egunaren aurreko azken hilabete naturalari dagokiona, 45 eurotik gorakoa izan bada MWh-ko.

b) Elektrizitatez hornitzeko kontratuen titularrak, elektrizitatearen bono soziala jasotzen badute eta ahul larriaren edo gizarte bazterketaren arriskuan dagoen ahul larriaren izaera aitortua badute, Kontsumitzaile ahularen figura, bono soziala eta energia elektrikoaren etxeko kontsumitzaileak babesteko beste neurri batzuk arautzen dituen urriaren 6ko 897/2017 Errege Dekretuan ezarritakoarekin bat.

2. artikulua. Energia elektrikoaren ekoizpenaren balioaren gaineko zergaren zerga-oinarria eta ordainketa zatikatuak zehaztea 2021eko zergaldian.

2021eko zergaldian, energia elektrikoaren ekoizpenaren balioaren gaineko zergaren zerga-oinarria hau izanen da: energia elektrikoaren ekoizteagatik eta sistema elektrikoan sartzeagatik zergadunak instalazio bakoitzeko eta zergaldi bakoitzean eskuratu beharreko zenbatekoa, energia hori zentralerako barretan neurtua, kenduta hirugarren hiru-hileko naturalean sisteman sartutako elektrizitateagatik jasotako ordainsariak.

Hirugarren hiru-hilekoko ordainketa zatikatuak kalkulatu dira zergaldian ekoiztutako energia elektrikoaren balioaren arabera, energia hori zentralerako barretan neurtua, kenduta hiruhileko horretan sisteman sartutako elektrizitateagatik jasotako ordainsariak, Energia elektrikoaren ekoizpenaren balioaren gaineko zerga, berotegi-efektuko gas fluordunen gaineko zerga eta kreditu-erakundetako gordailuen gaineko zerga arautzen dituen martxoaren 18ko 11/2015 Foru Legearen lehen artikuluko zortzigarren apartatuan aurreikusitako zerga-tasa aplikatuta, kenduta aurretik egindako ordainketa zatikatuen zenbatekoa.

Laugarren hiru-hilekoko ordainketa zatikatuak kalkulatu dira zergaldian ekoiztutako energia elektrikoaren balioaren arabera, energia hori zentralerako barretan neurtua, kenduta hirugarren hiru-hileko naturalean sisteman sartutako elektrizitateari dagozkion ordainsariak, aurreko paragrafoan aurreikusitako zerga-tasa aplikatuta, kenduta aurretik egindako ordainketa zatikatuen zenbatekoa.

Azken xedapen bakarra. Indarra hartzea.

Tributu Harmonizazioari buruzko legegintzako foru dekretu honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra, ezartzen dituen ondorioekin.

Iruñean, 2021eko uztailaren 14an

Nafarroako Gobernuako lehendakaria: María Chivite Navascués

Ekonomia eta Ogasuneko kontseilaria: Elma Saiz Delgado

4/2021 Legegintzako Foru-dekretua, uztailaren 28koa, Tributu Harmonizazioari buruzkoa, Zerga Bereziei buruzko abenduaren 30eko 20/1992 Foru Legea eta Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 19/1992 Foru Legea aldatzen dituenak.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko irailaren 6an eginiko bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Gobernuak honako Legegintzako Foru Dekretuaren ziurtagiria igorri du: “4/2021 Legegintzako Foru-dekretua, uztailaren 28koa, Tributu Harmonizazioari buruzkoa, Zerga Bereziei buruzko abenduaren 30eko 20/1992 Foru Legea eta Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 19/1992 Foru Legea aldatzen dituenak”.

Kontuan harturik Nafarroako Gobernuari eta Lehendakariari buruzko 14/2004 Foru Legearen 53. artikuluan eta Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 162. artikuluan xedatutakoa, honako hau ERABAKI DA:

1. Adieraztea uztailaren 28ko Tributu Harmonizazioari buruzko 4/2021 Legegintzako Foru-dekretuaren berri izan duela, zeinaren bidez aldatzen baitira Zerga Bereziei buruzko abenduaren 30eko 20/1992 Foru Legea eta Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 19/1992 Foru Legea.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2021eko irailaren 6an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

4/2021 Legegintzako Foru-dekretua, uztailaren 28koa, Tributu Harmonizazioari buruzkoa, Zerga Bereziei buruzko abenduaren 30eko 20/1992 Foru Legea eta Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 19/1992 Foru Legea aldatzen dituenak

Estatuaren eta Nafarroako Foru Komunitatearen arteko Hitzarmen Ekonomikoaren I. tituluan, Nafarroako tributu-araubidea Estatuko tributu-araubide orokorarekin harmonizatzeko irizpideak arautzen dira.

Esparru horren barnean, Estatuaren eta Nafarroako Foru Komunitatearen arteko Hitzarmen Ekonomikoaren 35. eta 32. artikuluek ezartzen dute ezen, zerga bereziak eta balio erantsiaren gaineko zerga ordainarazteko, Nafarroak aplikatuko dituela une horretan Estatuko lurraldean indarra duten arau substantibo eta formal berak. Hala ere, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak aitorpena eta ordainketak egiteko ereduak onesten ahal ditu, gutxienez ere lurralde erkideko datu berak edukiko dituztenak, eta likidazioaldi bakoitzean ordaintzeko epeak finkatzen ahal ditu, Estatuko Administrazioak ezartzen dituenetik funtsean alden du gabe.

Bestetik, Nafarroako Gobernuari eta Lehendakariari buruzko abenduaren 3ko 14/2004 Foru Legeak, 53.1 artikuluan, Nafarroako Gobernuaren araugintzarako ahalmena erregulatzean ezartzen duenez, baldin tributu-araubide erkidearen aldaketa batek behartzen badu estatuan indarra duten arau substantibo eta formal berak Foru Komunitatean aplikatzera Hitzarmen Ekonomikoan ezarritakoarekin bat, Nafarroako Gobernuak eman ditzake tributu arloko foru legeak aldatzeko behar diren foru lege mailako arauak, Nafarroako Parlamentuak eskuordeturik. Nafarroako Gobernuaren xedapen horiei, aipatutako legegintzarako eskuordetzearen ondorio direnei, “tributu harmonizazioarako legegintzako foru dekretu” izena emanen zaie, 14/2004 Foru Legearen 53.2 artikuluan xedatutakoari jarraikiz.

Uztailaren 9ko 11/2021 Legeak iruzur fiskalaren prebentzioarako eta haren kontrako borrokarako neurriak ezartzen ditu, barne-merkatuaren funtzionamenduan zuzenean eragiten duten zerga-saihestearen praktiken aurkako arauak ezartzen dituen Kontseiluaren 2016ko uztailaren 12ko 2016/1164 (EB) Zuzentarauaren transposizioa egiten du eta tributuen eta jokoaren arloko arau batzuk aldatzen ditu; horren ondorioz, zerga bereziei eta balio erantsiaren gaineko zergari dagokien araudia aldatu du, beste gai batzuen artean.

Fabrikazioaren gaineko zerga berezien arloan, Zerga Bereziei buruzko abenduaren 28ko 38/1992 Foru Legea aldatzen da, arau-hauste astunen kasu berri bat tipifikatzeko: fabrikazioaren gaineko zerga berezien xede diren produktuen kopuruan diferentziak egotea, gutxiago izatea, zehazki,

diferentzia horiek erregelamenduz ezarritako portzentajeak gainditzen dituztenean. Helburua da diferentzia horiek egon ez daitezen sustatzea.

Bestalde, Auzitegi Gorenak 2018ko otsailaren 27an emandako epaiak gerotik, bi arau-hauste tipifikatzen dira, legean eta hura garatzen duen araudian ezarritako baldintzak eta betebeharrak, zenbait zerga onura aplikatzeko beharrezkoak direnak, ez betetzea zigortzeko.

Zehazki, arau-hauste astuntzat hartzeko kasua da betebeharrak ez betetzea eta ez justifikatzea zertarako edo nola erabili diren salbuespenaren edo zerga-tasa murriztuaren xede izan diren produktuak; arau-hauste arina da, berriz, produktu horiek erabili izana salbuespena edo zerga-tasa murriztua aplikatzea justifikatzen duen helburu baterako.

Horrekin batera, Zerga Bereziei buruzko abenduaren 28ko 38/1992 Legearen 70. artikulua aldaketa ere egiten da, zehazki, zenbait garraiobideren gaineko zerga bereziaren karga-tasa zehazteko baliatzen diren epigrafeetan.

Aldaketa horien transposizioa tributu harmonizaziorako legegintzako foru dekretu honen lehen artikuluan egiten da.

Bigarren artikuluan, Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko Foru Legeari erantsen zaizkio Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 28ko 37/1992 Legearen egindako aldaketak. Bereziki, Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 19/1992 Foru Legearen 108. artikulua zazpigarren apartatuko laugarren paragrafoa aldatzen da. Aldaketa horren bidez, nabardurak erantsen zaizkie entitate taldearen araubidearen betebeharrak espezifikoen ez-betetzeak duten izaerari eta irispideari; izan ere, horietan arau-haustea entitate nagusiak izan behar du nahitaez, hura delako entitate taldearen ordezkaria eta hura dagoelako beharturik, beraz, araubide bereziak dakartzen betebeharrak material eta formal espezifikoa betetzera.

Horregatik, tributu harmonizaziorako legegintzako foru dekretu hau eman behar da, aipatutako zergei dagokienez Foru Komunitatean aplikatu daitezkeen Estatuan indarrean diren arau substantibo eta formal berak.

Horrenbestez, Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariak proposaturik, eta Nafarroako Gobernuak bi mila eta hogeita bateko uztailaren hogeita zortzi egindako bilkuran hartutako erabakiarekin bat,

DEKRETATZEN DUT:

Lehenengo artikulua. Zerga Bereziei buruzko Foru Legea aldatzea.

2021eko uztailaren 11tik aurrerako ondorioekin, Zerga Bereziei buruzko abenduaren 30eko 20/1992 Foru Legearen agindu hauek testu hau izanen dute:

Bat. 19.2 artikuluarik d) eta e) letrak gehitzen zaizkio:

“d) Fabrika eta gordailu fiskaletan, lehengaietan, fabrikazioan dauden produktuetan edo produktu bukatuetan diferentziak egotea, kopuru txikiagoak, zehazki, diferentzia horiek erregelamenduz baimendutako portzentajeetatik gorakoak badira, Administrazioak egindako izakin-zenbaketan agerian gelditu direnak.

e) Zergapekoek ez betetzea foru lege honetan eta hau garatzen duen araudian ezarritako betebeharrak eta baldintzak, bertan aurreikusitako salbuespenak edo tasa murriztuak aplikatzeko behar direnak, onura horien xede diren produktuak zertarako edo nola erabili diren justifikatzen ez denetan”.

Bi. 19.3 eta 6. artikulua:

“3. Aurreko apartatuko a), b) eta c) letretan aipatu arau-hausteei diru-zehapen proportzionala izanen dute; hain zuzen ere, produktuen kopuruei legozkiekeen kuoten %100, arau-haustea atzeman zen egunean indarra zuen tasa aplikatuta, eta gutxienez ere 1.200 eurokoa izanen da.

Aurreko apartatuko d) letretan aipatzen den arau-haustea diru-zehapena izanen du; hain zuzen ere, zerga bereziaren kuoten %50koa. Diferentzia produktu bukatuetan egiaztatu bada, egiaztatutako diferentziari legozkiekeen kuoten gainean kalkulatu da zehapena, eta diferentzia lehengaietan edo fabrikazioan dauden produktuetan egiaztatu bada, horietatik lor zitezkeen produktu bukatuen kopuruari legozkiekeen kuoten gainean; arau-haustea atzeman zen egunean indarra zuen zerga-tasa aplikatuta kalkulatu da zehapena, eta gutxienez ere 300 eurokoa izanen da.

Aurreko apartatuko e) letretan aipatzen den arau-haustea diru-zehapen proportzionala izanen du; hain zuzen ere, legez edo erregelamenduz ezarritako baldintzak eta betebeharrak zer produktutan ez diren bete, produktu horiei aplikatutako zerga-onuraren ehuneko 50.

Aurreko paragrafoetan adierazitakoaren arabera a), b), c) eta e) letrei dagokienez zehapena %25 handituko da, zerga arloko arau-hausteei errepikatzen direnean. Inguruabar hori gertatutak emanen da arau-haustea azken arau-haustea

egin aurreko bi urtean ebazpen irmo baten bidez zehapena jaso badu bide administratiboan, aurreko 2. apartatuan ezarritako debekuetako edozein urratzeagatik”.

“6. Zerga arloko arau-hauste arintzat joko da helburu komertzialekin edukitzea marka fiskalik ez duten edari alkoholodunak edo tabako gaiak, edo, marka horiek izanda ere, erregelamenduz horretarako ezarritako baldintzak ez betetzea, non ez zaion 2. apartatuan ezarritakoa aplikatzen jokabide horri. Arau-hauste hori honela zehatuko da:

a) 150 euroko isuna, 1.000 zigarroko multzo bakoitzetik; 600 euro, gutxienez ere, arau-hauste bakoitzeko.

b) 90 euroko isuna, biltzeko tabako xehearen kilogramo bakoitzeko; 600 euro, gutxienez ere, arau-hauste bakoitzeko.

c) 10 euroko isuna edari litro bakoitzeko; 600 euro, gutxienez ere, arau-hauste bakoitzeko.

Aurreko a), b) eta c) letretan ezarritako zehapenak gorantz graduatuko dira, isunaren zenbatekoa %25 handituta, arau-hauste horiek errepikatuz gero. Arau-haustea errepikatutzat emanen da arau-hausleak azkena egin aurreko bi urtean ebazpen irmo baten bidez zehapena jaso badu bide administratiboan apartatu honetan ezarritako debekuak urratzeagatik”.

Hiru. 19. artikulua, 8. apartatua gehitzea:

“8. Zerga arloko arau-hauste arina da zergapekoek ez betetzea foru lege honetan eta garatzeko araudian ezarritako baldintzak eta betebeharrak, zerga berezien xede diren produktuen erabilera dela-eta salbuespena edo zerga-tasa murriztua aplikatzeko ezarritakoak, non ez den zerga arloko arau-hauste astuna.

Apartatu honetan tipifikatzen den arau-haustek diru-zehapena izanen du; hain zuzen ere, legez edo erregelamenduz ezarritako baldintzak eta betebeharrak zer produktutan ez diren bete, produktu horiei aplikatutako zerga-onuraren ehuneko 10”.

Lau. 47.1 artikuluan 1., 2., 3. eta 4. epigrafeak aldatzen dira, eta ondorioak 2021eko abenduaren 31 arte izanen ditu:

“1. epigrafea:

a) CO₂ren emisio ofizialak 144 g/km-tik beherakoak dituzten ibilgailuak, salbu eta “quad” motakoak eta 6., 7., 8. eta 9. epigrafeetan jasotakoak.

b) Motor bakarria duten ibilgailuak, barne errekontzakoak ez dena, salbu eta “quad” motako ibilgailuak.

2. epigrafea:

CO₂ren emisio ofizialak 144 g/km-tik gorakoak eta 192 g/km-tik beherakoak dituzten ibilgailuak, salbu eta “quad” motakoak eta 9. epigrafean jasotakoak.

3. epigrafea:

CO₂ren emisio ofizialak 192 g/km-tik gorakoak eta 240 g/km-tik beherakoak dituzten ibilgailuak, salbu eta “quad” motakoak eta 9. epigrafean jasotakoak.

4. epigrafea:

a) CO₂ren emisio ofizialak 2240 g/km-koak nahiz hortik gorakoak dituzten ibilgailuak, salbu eta “quad” motakoak eta 9. epigrafean jasotakoak.

b) CO₂ emisioak neurtzea eskatu beharrekoa duten ibilgailuak, horiek frogatzen ez direnean.

c) N2 eta N3 kategorietan sartutako ibilgailuak, bizitzatarako moldatuak.

d) “Quad” motako ibilgailuak. Ulertzen da “quad” motako ibilgailua dela lau gurpil edo gehiago eta eskuleku bidezko direkzio sistema dituen; horrez gain, gidaria hankalatraba eserita doa, eta ibilgailuak errepidetik kanpo erabiltzeko egokia den trakzio sistema du.

e) Uretako motoak. Ulertzen da “uretako motoa” dela motor batek propulstutako itsasontzia, pentsatua dagoena pertsona batek edo gehiagok erabiltzeko, krosko baten gainean eta inguruan, ez haren barruan, eserita, zutik edo belainiko”.

Bigarren artikulua. Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko Foru Legea aldatzea.

2021eko uztailaren 11tik aurrerako ondorioekin, Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 19/1992 Foru Legearen 108 nonies artikulua zazpigarren apartatuko laugarren paragrafoa aldatzen da, eta testu hau izanen du:

“Entitate nagusia izanen da subjektu arauhauslea entitate taldearen araubide bereziaren betebeharrak espezifikokoak betetzen ez direnean, horien barne direla entitate taldeari dagozkion zerga zorraren sarrerak, konpentsatzeko eskaerak edo aitorten-likidazio agregatuaren ondoriozko itzulketak dakartzaten betebeharrak; entitate nagusia erantzulea da, halaber, menpeko entitateek kontsignatzen dituzten eta aitorten-likidazio agregatuan sartzen diren zenbatekoak eta kalifikazioak egiazkoak eta zehatzak izateaz. Entitate taldearen araubide berezia aplikatzen duten gainerako enti-

tateak zehapen horien ordainketaren erantzule solidarioak izanen dira”.

Azken xedapen bakarra. Indarra hartzea.

Tributu harmonizazioari buruzko legegintzako foru dekretu honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean

argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra, ezartzen dituen ondorioekin.

Nafarroako Gobernuako lehendakaria: María Chivite Navascués

Ekonomia eta Ogasuneko kontseilaria: Elma Saiz Delgado
